




***Segura txapoldun!***



**JOXE TELLERIA, S. M.**  
Aseguruak - Korreduria

*Beti prest gauzkazu zure arazo guztiak konpontzeko. Ez dago hoberik!*

BEASAIN    Erauskin Plaza, 2    ☎ 88 26 43 - 88 71 55    Faxe: 88 71 55



# MULTISOL, Modak ZURI BEGIRATZEN dizunean



BEGIRA IEZAIJUZU MODARI MULTISOL BATZUEKIN. DISEINURIK  
ERAKARGARRIENAK, PREZIORIK ONENEKIN: 1.950 pta.n ETA BEHAR  
IZANEZ GERO, KRISTALAK GRADUATUKO DIZKIZUGU.  
IKUS DEZAZUN! EZ ZALANTZARIK IZAN, MODAK ZURI MULTISOLEN  
BITARTEZ BEGIRATZEN DIZU.  
EEKO ARAUDIAREN ARABERA HOMOLOGATURIKO KRISTALAK.  
Betaurrekoekin  
batera kamixeta  
eder bat  
oparituko  
dizugu

**GARANTIA OSOA**  
**1.950 pta.n**

*J. Larranaga*  
OPTIKA  
MULTIOPTICAS

BERGARA - ARRASATE - ORDIZIA



*i*txura baino  
gehiago...

ANTZA

FOTOKONPOSAKETA

INPRIMATEGIA

Industrialdea 1-2 • ☎ (943) 37 15 45 - Faxa: (943) 36 10 48 • 20160 LASARTE ORIA

## GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

49. zenbakia. 94.eko ekainak 10. Debaldeko alea. Tirada: 3.500 ale. 3.200 harpidedun.

**Argitaratzailea:** "Goierritarrak"  
Kultur Elkartea.

**Dorre-etxea, 1. (Correos-gainean).**

**Tfna: 889612. Faxe: 161463.**

**124 posta kutxa, Ordizia.**

**Erredakzioa:** Jon Arano, Mikel Albisu.

**Publizitatea:** Josune Agirre, Argider Mujika.

**Erredakzio Batzordea:** Dionisio Amundarain, Andoni Sarriegi, Tere Irastortza, Jon Arano, Mikel Albisu, Jon Imanol Iturrioz,

Patxi Zubizarreta, Ane Martin, Loinaz Agirre, Nekane Altuna, Jesus M. Munduate, Amaia Balerdi eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:** Marijoxe Madariaga, Joxe Begiristain, Ana Irastorza, Aitor Calvillo, Rufino Iraola, Joseba Telleria, Aloña Galarraga, Jon Aldanondo, Joxe Azurmendi, Miren Guembe, eta Gorka Etxarri.

**Zenbait argazki:** Dioni

**Fotokonposaketa eta maketazioa:** GOIERRITARRA. **Inprimaketa:** ANTZA, S.A. (Industrialdea, 1-2. Lasarte-Oria)



ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Franko kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



## NON ZER

4. eskutitzak

5. agenda: *intereseko telefonoak, gastronomia, bota bertsoa, Ordiziako azken feria, Ikaztegieta, Beasaineta* Ordiziako kultur egitarauak, debaldeko iragarkiak, egutegiak...

8. iritzia txandaka: *Zegama ere intsumisioan sartuta*

9. besteek esana, inkesta: *Zer diozu Europako hauteskundeetaz?*

10. Goierriko berri: GOIERRITARRAK zuzendari berria

14. hemen eta orain: *Zer da yoga?*

15. erreportaia: *Misiolari bat Ekuatore-Ginean*

16. herriz herri: *Beasain, Ataun, Zaldibia, Itsasondo, Idiazabal, Lazkao, Ormaiztegi eta Ordizia*

22. gurutzegramak

23. kirola: *Herriarteko pelota txapela Segurara*

12. Erreportaia GOIEKI, Goierriren aldeko apostua

**GOIERRITARRA** etxean jaso nahi dut  
**NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT**

IZEN-DEITURAK .....

HELBIDEA .....

HERRIA..... TLF. ....

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jasotzen du

**GOIERRITARRAK**  
**GOIERRIKO**  
**UDALEN**  
**LAGUNTZA DU**



## Narrunarri II

Gipuzkoako beste zenbait auzo eta bazterretan bezala, Goierriko bailaran ere hainbat eta hainbat gertakizun bitxi eta miresgarriak gertatu ohi dira historian zehar. Gaurkoan, "Txindoki edo Narrunarri"? izenez argitaratutako artikulua osagarri dihoa honako hau.

"Gaintza" izeneko liburuxkan (26-30 orr.) jasotzen dudanez, XVI mendean gertatutako pasarteak gogoratzea merezi du: beste herri askotan ere kofradiak baziren, baina Gaintzan bat egondu zen oso berezia: "Errosarioko Kofradia" zeritzona. Eskriturak diotenez 1586-VI-16an izenpetua izan zen Gaintzako plazan. Zergatik sortu zen? Dirudienez, azken urte haietan, San Pedro egunez, bertakoek eta kanpotarrek berebiziko jaia ospatzen zuten, nahiz eliz inguruan dantza zatar, iskanbila, haserreak, labankadak, e.a., nahiz, baserri-etxe gehienetan jan edankeri ugari, mozkorkeri, bortxakeri eta zatarkerietan eroriz. Erdarazko agiriak dioenez ia baserri gehienetan tabernak jartzen omen zituzten. Beraz, udaren haseran, udako lan gogorrekin aurretik ospatzen zuten bi eguneko jai haietan egin zezaketeena ulertzekoa da; batik bat artzantza, nekazaritza, belar lanak, garo bilketak e.a. hain neketsuak iragan beharko zituztela pentsatzen badugu.

Egoera honi amaiera emateko Panplonako Gotzaiari Kofradi honen fundazioa sortzeko eskea egin zioten zenbait erretore, benefiziatu, testigu, e.a.-ek. Herritar guztiei, gizonezko nahiz emakumezko, deitzen zaie kofrade izatera. Hauetxe beren eginkizunak: urtero bi maiordomo aukeratu, kofradeen liburua eraman, etxeetan erabiltzeko kutxa, hildako kofradeen hileta eta bederatziurrenean partaide izan, baita Andre Mariaren 4 jaiera nagusitan, eta, batez ere, San Pedro egunez (ekainak 29), meza eta anaiarteko bazkaria (txistu eta musikarik gabe) herritar guztiak adiskidetzeko.

Honera arte datu historikoak. Baina zenbait galdera egin ditzazkegu: zer pasatu zen ordura arte izaten zen San Pedroko erromeri eta festekin? Behar bada, Gaintzako herrian, Errosarioko kofradetza hartu zutenak erabat alboratu ahal izango zuten. Baina, herritar baino kanpotar gehiago etorri ohi bazen, hauek ere erabat azkendu ote zuten? Ala Gaintzako "kontroletik" aparteko parajeetan S. Pedroko erromeria ospatuz jarraitu ote zuten? Txindokiko borda, Narrunarriean dagoena, San Pedroko erromeriaren leku izan omen zela zioen 46. GOIERRITARRAN mendizale batek. Larraizko jaia ere San Pedro bezpera eta egunez ospatu ohi zen. Orduan, bai Gaintza eta bai Abaltziketatik apartetxo zeuden paraje

hauetan, lege edo bijilantzitik aldenuz, ez ote zuten San Pedroko erromeria ospatuz jarraitu? Neuri behintzat inpresio hori ematen dit. Beraz, Txindoki bordako erromeria ez zen "mendizaleek" eratua, dirudienez.

Orduan eta gaur ere Gipuzkoako bizkar gailurra dugun Narrunarrik honelako gauza asko jakingo ditu. Berak guri ezin esan, ordea. Baina bere babesean erromeritza beharrezko zaigu gaur ere. Mendiaren ederra festagai egitea. Eta geu naturaren gailur zoragarri izatea.

*Emeterio Sorazu*

## Erredazio Batzordearen oharra

"Eskutitzak" saila, aldizkarian azaldutako edozein gairi buruz edota interesgarri izan litekeen beste edozertaz, GOIERRITARRAko irakurleak adierazi nahi duena idatziz jasotzeko txoko irekia da.

Karta ez da inoiz ibili behar folio batetik gora (gainontzean kolaborazio moduan hartu genezake, eta derizkiogun modura laburtu ahal izango genuke). Bertan, idazlearen izen-abizenak, telefonoa edota helbidea, NAN zenbakia eta kaleratu nahi duen sinadura (ezizenez ere izenpetu liteke) eman beharko dira.

  
CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA

**Guzti hau irudi berri baten  
hasiera baino ez da,  
profesionaltasun garbiko  
bidean.**



Zuk badakizu Euskadiko Kutxak gogor diharduela euskal gizarte eta enpresagintzaren alde. Oso Kutxa geure-geurea dela. Euskal Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen al duzu gure profesionaltasun -eta aholkamendu- maila.

Gazteentzat, esate baterako, onura gehiago. Familientzat, interes handiagoak kontu korrontean eta ohizko libretan. Beste kutxetan baino gehiago.

Eta guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesionaltasun garbiko bidean.



# Agenda

## Intereseko

### Telefonoak

Zumarragako Eritetxea: .....721614  
 Donostiako Erresidentzia: ..453800  
 Gurutze Gorria: .....272222  
 DYA: .....464622  
 SOS Deiak: .....088  
 Eguraldi informazioa: .....094  
 Errepideen egoera: .....288888  
 Ertzantza (Beasain): .....887350  
 Suhiltzaileak (Ordizia): .....881362  
 Renfe (Beasain): .....880853  
 Sarasola Garraioak: .....880710  
 Pesa Garraioak: .....880668  
 Estellesa (Donostia): .....470115  
 Itxaropenaren tfnoa.: .....458005  
 HIES-SIDARI buruzko Inf.: 282666  
 Alkoholiko Anonimoak: .....276618  
 Goierri Lanbide Eskola: .....880062

## Errezeta



**Jose Luis Mujikak  
 emana  
 Mujika jatetxea  
 Liernia (Mutiloa)**

**ARKUMEA** "TXILIN-  
 DRON" ERARA  
**Osagaiak:**  
 1,5Kg arkume  
 2 tipula  
 2 piper  
 pikillo piper lata bat  
 baso bat ardo txuri  
 baso erdia koñak  
 Arkumea zatiñu eta su handian  
 frijitu "doratu" arte. Eltze ba-  
 tean jarri frijitutako olioarekin.

Tipulak eta piper berdeak ju-  
 liana eran moztu eta zartagi  
 batean sutan jarri. Egiten di-  
 renean arkumeari gehitu eta  
 koñakarekin flanbeatu.  
 Koñaka ondo erretakoan ardo  
 txuria gehitu eta su txikian or-  
 du erdi inguru eduki. Egin bi-  
 tarte piper gorriak zartagi  
 batean bigundu arte eduki. De-  
 na egiten denean arkumea pi-  
 per gorrien gainean mahairatu.

## Bota bertsoa



**Joxe Munduate  
 Gaia: Europako  
 hauteskundeak  
 Doinua: Begira nago  
 jarria bera**

Zer motatako zurrumbiloa  
 hauteskundeak heltzean  
 politikoez sendagai denak  
 bakoitzak bere etxean  
 gizarteari eman botoa  
 dio kopetabeltzean  
 indarrez eta letxean (bis)  
 bada ez bada trapu zikinak  
 ezkutaturik atzean  
 bere mitina gera ez dadin  
 denbora pasa hutsean (bis)

Sobrean sartu papera eta  
 denok boto ematera  
 gure eskutan dagoelako  
 agintearen aukera  
 bakoitzak berak hartu dezala  
 komeni zaion jarrera  
 nahiz gauzak gaizki atera (bis)  
 gauean behintzat itxaropen bat  
 eramango det ohera  
 zerbait aldatzen hasiko dela  
 astelehenetik aurrera (bis).

## Egunkaria HARPIDETZA TXARTELA 1994

Izena.....Tfnoa.....  
 Abizenak.....  
 Helbidea.....Herria.....  
 \*Ordaintzailea.....  
 \*(Bete soilik ordaintzailea eta harpideduna desberdinak direnean)  
 I.F.K. edo N.A.N.....Banketxea.....  
 Suk.....Kontu zbk.....  
 Kontrako agindurik ez dagoen bitartean, harpidetza automatikoki berrituko zaizu  
**EUSKALDUNON EGUNKARIA, Getaria Kalea, 21 Donostia ☎ 431910 (Marisa)**

**IDIAZABALEN  
 BASERRIA SALGAI  
 terrenoarekin edo gabe.**

**Tfnoa.: 76 14 38  
 (dei 3etatik 5etara)**

**inlingua**  
**hizkuntzak**

J.M. Iturrioz, 11-1. ☎ 16 05 72  
 BEASAIN

## UDAKO INGELES IKASTARO TRINKOA. UZTAILEAN eta IRAILEAN.

Ordutegia: bi ordu egunero, astelehenetik ostiralera.  
 9etatik 11etara edo 11etatik 13etara, goizez  
 15etatik 17etara edo 19etatik 21etara, arratsaldez  
 Uztailan 4etik 28ra, Irailan 5etik 29ra.

*Ikastaro bakoitzean ikasleak egin duen ikastaroaren eta mailaren DIPLOMA jasoko du.*

Elkano k., 8-1. ☎ 88 11 37  
 ORDIZIA

Iparragirre, 8-1. ☎ 72 22 23  
 ZUMARRAGA



## Debaldeko iragarkiak

### Lana

□Zure edozein motatako inprenta lanak egingo ditugu GOIERRITARRAN. Dei 889612 telefonora lasai asko.

□Mekanografia lanak ordenadoren eginen dira. 882843 telefonoa, Eli.

□Udaleku irekietarako (ekainak 27tik uztailaren 22ra) begiraleak behar dira. Olaberrian erroldatua egotea, begirale titulua edukitzea, euskara jakin eta atsedendaldi taldeetan esperientzia eskatzen dira. Informazio gehiago Olaberriako Udaletxean.

### Etxebizitzak

□Pisu amoblatua alokatzen da Altamiran. Dei 1616160ra.

□Etxebizitza salgai Ordiziako Arana kalean, (sukalde berriarekin). 885584 tfnoa.

## Egutegiak

□SEGURAKO JAIEN HASERA. Ekainak 23 osteguna: iluntzean, txotxongiloak, kanpai bueltakoak eta zuhaitz jartzea, haurren tanborrada (tartean pregoia), San Juan sua. Gauean, Legazpi Taldea goizalderarte.

□ESKOLA TXIKIEN FESTA IKAZTEGIETAN, ekainak 19an. 10,30etan jendea bildu; 11,00tan Eskola Txikietako umeen ekitaldia; 13,30etan Herri Kirolak, aizkolariak eta harrijasotzaileak; 14,00etan bazkaria (oilaskoak). 16,00etan Takolo, Pirrutx eta Porrotx pailasoak; aldi berean mus txapelketa helduentzat; ondoren ume jolasak eta bertsolariak, Millan Telleria, Iñaki Murua, e.a. Bukatzeko Eider eta Oihana trikitilarietako erromeria.

□BEASAIN. Ekainak 10, diapositiba emanaldia (eskaldada) Aizkorri M. E.an. 10etik 19ra bitartean, Kultur Etxeko aretoan zeramika erakusketa. 16: "Euskara Beasainen eta Goierri" gaia duen hitzaldia, Iñaki Larrañaga soziologoaren eskutik, Udaletxeko Batzarre Aretoan 20,00etan. 17, "La

selva amazonica" diapositibak J.Fernandezek eskeinia Aizkorri Elkartearen 20,00etan. 18, Arrano K.E.-aren 11. urtemuga dela eta zenbait Kultur-kirol ekintza ospatuko dira. 23, San Joan Bezpera: San Joan Jaia, erraldoi, buruhandi eta zangoluzeen irteera, haurrentzako jokuak musikarekin arratsaldea girotzeko, Loinazko San Martin Plazan; ohizko sutea, dantza eta txarangarekin Barrendain Plazan (Geltoki parean).

□ORDIZIA. Ekainak 17, Musika Eskolako ikasleen urte-amaierako kontzertua, Herri Antzokian, 19,30etan. 18, Umeen marrazki eta pintura eguna, Enparantza Nagusian, 10,30etan. 25, Gipuzkoar Aurresku lurralde txapelketa, Enparantzan, 18,00etan. **Ordizia/Beasaingo**

### Goardiazko botikak:

□Ekainak 10: Jauregi; 11-12: Azpilikueta; 13: Laurnaga; 14: Cuesta; 15: Arriola; 16: Urbizu; 17: Atorrasagasti; 18-19: Laurnaga; 20: Azpilikueta; 21: Jauregi; 22: Laurnaga; 23: Cuesta; 24: Arriola.

### Ordiziako Herri

**Antzokia:** Ostirala 10, 10,15 "Cronos". **Larunbata, 11:** "Entre dos mujeres (Intersection)", 7,30- 10,15. **Igan-dea, 12:** "Alladin", 4,45; "Intersection", 7,30- 10,15. **Astelehena, 13:** "Intersection", 7,30. **Ostirala, 17, 10,15:** "La novia de Re-Animator". **Larunbata, 18, 7,30- 10,15:** "Fresa y chocolate". **Igan-dea, 19, 4,45:** "Jardin secreto"; "Fresa y chocolate", 7,30-10,15. **Astelehena, 6,** "Fresa y chocolate", 7,30. **Ostirala, 24,** "El Informe Pelicano", 10,15.

### Mendizaleak:

**Ordiziako Mendizaleak:** ekainak 11: Candanchu-Hecho (egun osorako); 19: Lezo-Jaizkibel- Hondarribia. **Idiazabal K.E.:** ekainak 19: Hegiraz-Baio (8,00etan irteera). **Beasaingo Aitzgorri M.E.:** ekainak 12: Beasain-Gaintza- Beasain trabesia; 19: Deskarga- Arrolam.-Legazpi (910 m. Pausogaizto: ekainak 18-19: Naranjo de Bulnes ohizko bidetik



### BISITA ORDUAK

Larunbata: 11etatik, 14etara  
16etatik, 18etara  
Igandea: 11etatik, 14etara  
Lanegunetan: 10,30etatik,  
14,30etara, aurretik deituz.  
☎ 80 17 24

## KATTALIN

ERRETEGIA-SAGARDOTEGIA  
*Sagardoa txotxetik*

Antzizar Auzoa, 4 - "Biona" Etxea  
(Polikiroldegi ondoan) ☎ 889252 BEASAIN



## GOIERRI LANBIDE ESKOLA

I.E.E. - R.E.M.

L.H. - F.P.

• TEKNIKO INDUSTRIAL BATXILERGOA  
• ADMINISTRAZIO ETA GESTIO BATXILERGOA

• ADMINISTRATIBO ETA KOMERTZIALA  
• GALDARAGINTZA ETA SOLDAKETA  
• ELEKTRIZITATEA-ELEKTRONIKA  
• MEKANIKA



## Ordiziako azoka

**Bertako produktuak. Nobe-dadeak:** Xixak, 1.500-3.500.-k. onttoak 2.500; **Abe-reak:** Arkuma, 450-500 pzta.-k; antxuma, 460-470; untxia, 200-220. **Gaztak:** beheiena, 750-800 p.-k.; ardigazta, 1.350-1.600; nahasia, 950-1.200; ahuntz gazta, 1.300. **BarazkiaK:** azaburua, 80-150; azelga 50-75 xorta; baratxuria 75-100 x.; borraja, espinaka, zainhoria, 50-75 x.; babarrun beltza 700-900 k.; gorria eta zuria, 400-600; letxua 40-80 b.; patata, 100 k.; porrua 85-100 x. tipulina, 60-100 k. **Kanpoko produktuak:** **frutak:** arana, 200; albertretxikua, 200-250k.; banana, 140-225; kiwia, 250-275; brioia, 250-375; laranja 130-200; limoia, 150; geriza, 300-450; sagarra 110-200; udara, 200-275; marrubia, 225-250; meloia, 250-275 p.-k. **Kanpoko barazkiak:** azalora, 220 bakoitza; patata berria 75 k.; piper-gorria 250; berdea 125; tomatea 225-250; tipulina, 125 x.; zainzuria, 400 k.; **Arrainak:** amorraina, 600; antxoa 640; antxoilua 1.050; bakailaua, 1.100; bixigua, 1.750-2.100; itsasoilarra, 980; izokina 1.300; kariokita 810; legatza, 1.880; mediana 1.320; peskadila, 1.190;

Ana Irastorza

## Deialdiak

**ZIENTZI** zabalkunde-rako sariak 94 antolatu dituzte "Elhuyar" aldizkariak eta CAFek elkarrekin. Sari hauetara argitaragabeko eta euskaraz idatzitako zientzia eta teknologiaren dibulgaziorako edozein lan aurkez daiteke. A mailan, lanek gutxienez 3 DIN A4 eta gehienez 6 izango dituzte eta B mailan gutxienez 75 DIN A4. Lanak azaroa baino lehen bidaliko dira Elhuyar Kultur Elkartera, Asteasuain 14, 20179 Usurbil.

**I. IGARTZA** abentura eta misteriozko nobela lehiaketa antolatu du Beasaingo Udaleko Euskara Zerbitzuak. Helburua, gaztetxoek gustoko dituzten nobela mota hauen euskarazko sorkuntza bultzatzea. Edo-nork parte har dezake, adi-

na eta nazionalitatea kontutan hartu gabe. Jatorriz euskaraz idatziak, argitara gabeak eta beste inon saritu gabeak izan beharko dute idazlanak. Gaia, librearen arren, guztien ardatza abentura edo misteriozkoa izan beharko du. Lanek gutxienez 50 folio izango dituzte eta irailaren 30erako Beasaingo Udaletxeko Euskara Zerbitzura (Loinazko San Martin Plaza, z/g. 20.200 Beasain) bidali beharko dira. CAF eta Elkar argitartxearen babesa du lehiaketa honek, eta lan saritua argitaratzeko konprometua dute, egile eskubideak saridunari emanez. Epaimahaian Pako Aristi, Jimu Iturralde eta Koro Navarro izango dira.

**UDA IKASTAROAK**  
AEKn. 8. urtez jarraian, Uda Ikastaro trinkoak an-

tolatu ditu Goiztiri Aek Euskaltegiak uztaileko. Klaseak ekainaren 27an hasi eta uztailearen 22an amaituko dira. 3 eskaintza mota daude: 5 ordu egunean (8,30etatik 2etara, 100 ordutako ikastaroa); 4 ordu egunean (9etatik 1era, 80 ordutako); 3 ordu egunean (10etatik 1era, 60 ordutako), klase egunak astelehenetatik ostiraletara izango direlarik. Maila guztiak: Euskalduntzea, Alfabetatzea eta EGA. Ikastaroak Udaletxeak subentzionatuak dira. Matrikulazio epea ekainaren 6tik 23ra egongo da zabalik, goizez eta arratsalde. Matrikulatu ahal izateko edota informazio gehiagotarako: Ordizia, Sta. Ana Ikastetxea, 889174 tfnoa.; Beasain, Kale Nagusia, 5-3., 889340 tfnoa.

## LA ESTELLESA, S.A.

**DONOSTIAKO LEIHATILA**  
Bizkaia Pasealekua, 17  
Tfnoa: (943) 47 01 15

**IRUÑEA-BULEGO NAGUSIA**  
Navas de Tolosa K., 27  
Tfnoa: (948) 22 52 08  
Faxa: (948) 22 52 07

**LIZARRAKO LEIHATILA**  
Autobus geltokia  
Tfnoa: (948) 55 01 27

**LOGROÑOKO LEIHATILA**  
Autobus geltokia  
Tfnoa: (941) 23 58 03

### ATAUN ETA DONOSTIA ARTEKO EGUNEROKO AUTOBUS ZERBITZUA

#### ATAUNDIK IRTEERAK:

7:30etan  
10:15etan (Logroñotik datorrena)  
14:30etan  
18:15etan (Logroñotik datorrena)

#### DONOSTIATIK IRTEERAK

8:00etan (Irundik datorrena)  
13:15etan  
16:00etan (Irundik datorrena)  
20:15etan

#### ONDORENGO IBILBIDEAREKIN:

Ataun - Aia, Ataun - S. Gregorio, Ataun - S. Martin, Lazkao, Beasain, Ordizia, Itsasondo, Legorreta, Ikaztegieta, Alegia, Tolosa, Irura, Billabona, Andoain, Lasarte-Oria eta Donostia.

## GOIZTIRI



## EUSKALTEGIA UDAKO IKASTAROAK

Matrikula zabalik  
ekainaren 23arte.

☎ 88 91 74 Ordizia  
☎ 88 93 40 Beasain





**Joxe Azurmendi**  
EHU-ko irakasle eta idazlea

## ***Herri txiki askotan, arrazoizkoa soldadu ez joatea hasi da berriro izaten***

Ez da Zegama izateagatik, eta Zegama nire herria (baina Zegama ere izateagatik), intsumisioan sartu dena: Manu Arizkorretak ez du soldadu joan nahi. Eta zegamarrek (Zegamako Udalak eta herriak) ulertu egin diote. Berria da hori. Eta berria da.

Herri txikiek beren logika partikularra izaten dute, eta beren zailtasun partikularrak izaten dituzte arazo batzuk ulertzeko. Lehen, soldaduska egin beharra zegoen eta, herrian, soldadu joatea ematen zuen arrazoizkoena, bildurrak urte askoan jendea irakasten dion arrazoiarekin. "Gu joan ginen ba: zergatik ez du joan nahi orain mutil horrek?", bildur zara, edozein kaikuk horrelaxe galdetuko ote dizun. Baina ez da horrela izan. Bakoitzari bere adorea bakarrik, makina bat kostata gainera, irakas diezaiokeen barru-barruko arrazoiarekin, Zegaman eta Euskal Herriko herri txiki askotan, arrazoizkoa soldadu ez joatea hasi da berriro izaten orain. Berriro: mutilak ez baitira beti isil-isilik soldadu joan izan munduan, eta gutxiago euskaldunak.

Karlistadak galdutakoan hasi zen E.H.-n soldadu joan beharra. Ez da hain aspaldi, eta ezaguna da "libratzeagatik" familietan beti egon diren ahaleginak eta trikimailuak. Soldaduska absurdu hutsa beti izan da eta ahal zuenak ihes egin dio, hori egia zeharra da hemen. Dena dela, karlistada hura bezala, euskaldunok galdu egin genuen Estatuari buruz gogoeta kritiko serio bat egiteko aukera ere orduan eta orain daukagu egin beharra.

Beharbada den-denek ez zuten aukera galdu, halere,

## **Zegama ere intsumisioan sartuta**

Pio Barojak behintzat bere ondorioak laster atera zituen. "Yo soy un antimilitarista de abolengo. Los vascos nunca han sido soldados en el ejército regular", protestatu zuen. Gazte pilak aldegin zuen orduan Ameriketara edo Iparraldera soldaduskatik ihesi. Soldaduskatik, ala Estatu berritik? Hori baita kontua, Arana Goiri, Kanpion, etab, orduan hasi ziren gaineratu zitzaigun Estatuaren arazoari aurre egiten eta beste etorkizun bat bilatzen E.H.-arentzat, gerra galdu duenari bizkarreratzen zaion zigorra baino beste zerbait izango zena. Bila jarraitzen dugu.

"Yo siempre he tenido un asco profundo por el cuartel, por el rancho y por los oficiales" deklaratu zuen don Piok. Hori, zegamar denek sentitu dute beti don Piok adina eta gehiago. Ez da nahikoa! Zegamarrek ondo ikusi dute, askok ikusi nahi ez duena, oraingoan asuntua ez dela norbaitek soldaduskatik ihes egitea edo aitzakiak asmatzea "libratzeko": Manu Arizkorretak problemari aurre egin dio, ihes egin gabe, buruz buru. Intsumisioan planteatzen dena, ez da arrantxoia, Estatuak da eta "gaur egun aurkitzen garen dominazio sistema", Arizkorreta intsumisioaren alde Zegamako Udalak onartutako

mozioan dioten bezala. Ez da izango gure arazo guztien soluzioa, baina soluzioak bilatzeko bide bat da.

Intsumisio mugimenduak arriskua badauka, folklore modu batean bukatzeko, bere esanahi sakonena transmititzea lortzen ez badu gizartearen (eta Estatuaren ahalegin guztiak egingo ditu), lor ez dezan. Inportantea bilakatu da sozialki. Interesantea da, ideia bezala ere. Pertsonaren duintasun erradikalaren ideia. Estatu jantzitako Makina Armatuari aurre egitea. Arrisku tsuegia da, atzoko gure historian alderdi eta alderdi baten baten eta elkarrekin enfrentatu gaituen planteamendu modu asko, gaitzen duelako ere. Berriro denok bategiteko aukera bat, "dominaziorik gabeko eta justizia eta elkartasunean oinarritutako bake baten aldeko ekintza".

Intsumisioa, ez ihespide bezala, baina erabaki moral eta sozial bezala, azken urteotako erreferentzia argitsuena bihurtu da, seguruenik, Euskadi apal eta libre batean amets egiten jarraitzen duten guztientzat, mundu humanoago batean denok bakean bizitzeko. Hala ulertu du Zegamako Udalak, mozioa onartuz Manu intsumisioaren alde. Eta ez da Zegama izateagatik, eta Zegama nire herria: euskal gizartearen ulertzen hasi delako da, hirietatik herrisketaraino, gazteen borroka hori gure borroka dela, herriarena, guztiona. Gizarte eredu bat dagoela jokoan. Gizarte berri bat, esperantza bat. Izan ere, luzarora garbi ez badago ere nolako Euskadi bat denok nahi dugun, hasteko, jakin dezakegu nolako ez dugun nahi.



## Besteek esana

### Eskola-azterketak

Irakaskuntza guztiz masifikaturik daukagu gaur egun eta horregatik azterketak jartzeari derrigorrezkoa da, bestela irakasleak ezin duelako epaitu, esijitzen zaion bezala. Azterketa batek memorizazioa eta ahalmenak besterik ez ditu neurtzen eta ikasleari ohitura txarrak sortarazten dizkio. Oso injustua da, alferkagarriak hobetsi eta langile fin baina justu dabilzanak hankaperatzen dituelako. Talde txikiak, irakaskuntza jarraitua eta azterketarik gabeko lortu behar da.

**Iñaki Murua, "Egunkaria"**  
(Ikasmendi), 94ko maiatza.

### Bertsolaritza

Bertsolaritza azken 30 urteetan gertaera sozio-kultural gisara bide bat irekiz joan da. Orain lan horren fruituak jasotzen ari da. (...) Bertsolaritzak proiektu propioa behar du.

**Siadeco-ko Iñaki Larrañaga**  
soziologo lazkaotarrak,  
"Egunkaria"n, 94-V-17.

## ▼▼ Inkesta ▼▼

### Zer diozu Europako hauteskundeetaz?



**Gurutz Lasa**  
legorretar Beasaineratua  
39 urte langilea

Garrantzitsua iruditzen zait, Euskal Herriaren egoera salatu eta gure eskubideak defendatzeko. Euskal parlamentariak han eduki behar dira, Europar erabaki garrantzitsuak hartzen dira eta guk ere horretan parte hartu behar dugu.



**Jabier Eskisabel**  
ormaiztegiar Lazkaoratua  
40 urte langilea

Nahasketa handia eta zinkeria asko dagoela iruditzen zait. Euskal Herriak bere presentzia han edukitzea interesgarria da, presoen egoera, desindustrializazioa eta bar salatzeko. Hala ere garbi eduki hortik ez dela gauza handirik lortuko.



**Juanbau Erauskin**  
zaldibitarra 32 urte  
euskara irakaslea

Ez daukat iritzirik. Europa urruti xamar geratzen da, hala ere Esukal Herrian gertuagotik jarraitzen dela iruditzen zait. Kanpainari berriz ez diot batere kasurik egiten, jendeak ondo ezagutzen ditu eta ba daki zer egin.

## EZ ZAITEZ EZKONDU



**KIBI EZTEIAK, EZTEIEN 3. FERIA**  
atik pasa gabe  
Ekainak 10-11-12, 11etatik 21etara  
**Karmelo Balda Polikiroldegian**  
**DONOSTIA**

### EZTEI ETA ETXERAKO BEHAR DIREN ZERBITZU GUZTIAK

#### EGUNEROKO OPARI ZOZKETA

1994ko abuztutik aurrera edo 1995.ean ezkondu behar diren bikoteentzat.

**LORTU EZAZU ZURE GONBIDAPENA 673372 TELEFONORA DEITUZ**  
Eta bisitari GUZTIEN artean EGUNERO ZOZKETA BEREZI bat egingo da: Palma de Mallorcan zazpi eguneko egonaldia bi pertsonentzat.

"Eguneroko ogia,  
ogi bereziak eta  
pastel ezin hobeak"



Kale nagusia, 35 Santa Maria, 19  
☎ 88 77 58 ☎ 16 00 44  
**BEASAIN** **ORDIZIA**



## Ba al dakizu...?

☐“Goierritarrak K.E.”ak osatutako epaimahaiak (Dionisio Amundarain buru dela) ontzat eman du Loinaz Agirre beasaingar kazetaria (“Egunkaria”ko langilea orain arte) GOIERRITARRA hamabostekariaren zuzendari izendatzea. GOIEKiko administrazio kontseiluak ere onartu du. Aurtengoko Goierriko Udalen laguntzak bide onean ditugu, beraz, zorionez.

☐“Argia”tik: Xabier Gurrutxagak, EuEko idazkari nagusia, bere alderdia foro bilakatu delarik, ez du, antza denez, bere etorkizuna oso argi ikusten eta lan bila hasi da. Bere asmoa lehen erroetara itzultzea zen, Ordiziako Jakintza Ikastolara. Baina ikastolak ez du bere eskaera onartu, aspaldidanik ikastola eta ormaiztegiarraren arteko lan harremana amaitua baitzegoen. Politikaren bidetik etorkizunik ez duela ikusten badu, beste lanen bat bilatzen hasi beharrean izango omen da.

☐Eusko Jaurlaritzak espedientea zabaldu die zenbait enpresei 3-R plangintzako baldintzak bete ez dituztelako, komunikabide guztiek ekarri dutenez. Espedientatutako enprezetan Beasaingo Indar dago. Indar-en kasuan

Jaurlaritzak ikusi du 3-R plangintzak jarritako baldintza batzuk ez dituela bete eta horren ondorioz abal modura aurreratutako dirua (950 milioi pezeta) itzultzeko exigitu dio. Itzultzen ez badu zigor espedientea zabaltzea erabakiko du Gobernuak. Ordainketa-eten egotik dagoen Indar-i abal horiek aurrikusitako helburuetarako ez baino beste batzuetarako erabiltzea, eta markatutako plan estrategikotik desbideratzea leporatzen zaio.

☐Kaleak eta bideak. Beasaingo Oriamendi kaleko konponketa lanak hastear daude. Hile bukaerarako Ordizia eta Beasain arteko N-1a irekirik gera liteke. Etxegarateko portuko bikoizketa-obra ez omen dira egingo, ordea. Ezkertasuna azken kasuan, beraz.

☐Geroz eta gehiago ari da zabaltzen gure gizartean natur ingurua ondo gorde eta zaintzeko kezka. Aurreko zenbakian genekarren Aizkorri zaintzeko hiruorriko xumearen eta bertan zetozen gomendioen berri. Idiazabalgo K.E.-ko mendi sailak jakinarazten digunez, datozen asteetan, mendian ibili ohi diren guztien artean banatuko omen dira hiruorrikook.

☐Goierriko Parkerako 20 suhiltzaile boluntario hartzeko deialdia egin da. Bestalde, Ordizian eta beste, etxetan laguntzen duten emakume langileak greban hasteko ziren eta komunikatuak ematen hasi dira beren egoera salatuz.

☐Kulturarekin zerikusia duten zenbait berri labur: Takolo, Pirrux eta Porrotx pailazoak eta Ordiziako Musika Eskolako haurrak han eta hemen dabilta emanaldiz emanaldi, azkenean Irutxulo Donostiako Astekariaren alde. Orain 14 urte hasitako tradizioarekin jarraituz, Ordiziako Beti Argi Bandak bere kontzertua eskeini zuen bertan Korpus egunean. San Juan de la Cruz-en poemak baliatuz Imanol kantariak disko berria atera du Beasaingo Carlos Jimenez musikariarekin bat. Lurdes Intxausti idiazabaldar “saltsera”ra ETBko “22ra” lehiaketan lanean ikusten dugu Joxe Felipe Auzmendi beasaingarrarekin batera.

☐Ekaitz Goikoetxea 13 urteko beasaingarra eta Xabier Silveira nafarra izan dira txapelkun aurtengo Eskolarteko Bertsolari Txapelketan. Ekaitz txikien mailan lehiatzen zen, datorren urtean gazteenean kantatuko du. Bere

# ALEGIAN

**EKAINAK 18  
LARUNBATA  
PILOTALEKUAN  
GAUEKO 10,30**

KANTALDIA

**MIKEL MARKEZ  
BANDA**

**ANJE  
DUHALDE**

BERTSO SAIOA

**ITURRIAGA Unai  
ELORZA Igor  
LUJANBIO Maialen  
LOPEZ Juan Mari  
IRAZU Jesus Mari**

laguntzailea



ALEGIAKO  
UDALA

antolatzailea



**ARGIA**

# KUKO Jatetxea

—Haragietan aukera handia  
—Okeletan mundu oso bat

Igandeetan jai, erreserbak salbu  
(bataio, jaunartze, e. a.)

Berjaldegi Plaza, z/g

☎ 88 28 93

ORMAIZTEGI



ustez, saioan zehar erregularitasunez aritzeak erraztu dio txapela txikia Goierriara ekartzea.

**LAZKAO.** Gerriko Ikerlan-Sariketako azken ediziora, 5.a, hurrengo lan eta egileak aurkeztu dira: "Jose Ignazio Gerriko Enatarriaga (1740-1824) eta bere Cristau Doctrina guztiaren esplikacioaren sayaquera (1858), Pello Jose Aranburu, Marian Bidegain, Antton Idiakez eta Iñaki Rezolak egina; "Sasieta Mankomunitatea. Zabortegei kontrolatua", Garai Arruabarrenarena; eta "Ezkioko ilunpearen argi printzak", Iñaki Bastarrika eta Jabier Oterminena. Epaimahaian Miren Azkarate, Xipri Arbelbide eta Balere Bakaikoa egon dira eta 1.en saria Gerrikori buruzko lanak jaso du, 2.a hutsik utzi da eta 3. saria Sasieteri buruzkoak jaso du. Ekainaren 10ean banatuko dira sariok Lazkaoko Udallexean.

**ORDIZIA.** Udalaren azken Osoko Bilkurara eramatekotan ziren

Epaitegiaren erreibindikazioa. Orain dela urte batzu epai- barrutiak aldatu egin ziren eta Goierri 1. istantziko epaitegirik gabe geratu zen. 88ean goierritar udal guztiek erreklamatu zuten hori baina ez zen aurrera atera. Oraintxe une egokia izan litekeela eta exigentzia zahar hura birplanteatzea komeni omen litzateke. Momentuz, berori apoiatu dadila eskatzen du GOIEKIK.

**SEGURA.** Bertako aterpean inglesa ikasi ahal izango da uztailaren 16tik 30era. Diputazioak atera berri duen eskaintza 50 lagunentzako da eta matrikulak 40.000 pezetako kostua du. Bertaratzen direnek goizez 6 orduko klaseak izango dituzte, jatorrizko irakasle ingelesek emanak. Hainbat ekintza antolatu dira arratsaldetarako. Aterpeak 60 lagunentzako lekua du, biltokia, jokuak, telebista-bideoak, frontoi estalia eta berdegune puska bat ere bai.



**Datorren 19an, igandea, Segurako Baratze Pilotalekuan, ospatuko da eguerdiko hamabietan kanporaketa eta arratsaldeko seietan Euskadiko XVIII. Dantza Askatuko Txapelketaren finala. Segurako Udalak antolatzen du, erakunde ezberdinen laguntzaz.**

## Jose Mari Salinas

### Auto elektrizitate

Erreminta elektriko erabilgarriak  
Konponketak

Enatarriaga etxea, Iurre auzoa  
Tfinoa: 88 21 49 BEASAIN



**GENERALI**  
**Aseguroak**

**IÑAKI ARIN BAZTARRIKA**

Oriako Pasealekua, 20

Tfinoa: 88 87 02

BEASAIN



## IRAKASLE ESKOLA

Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:

**1994-95 ikasturterako aurreinskripzio-  
epea zabalik dagoela**

Ikastetxe honek, Euskal Herriko Unibertsitateak onartu dizkion Espezialitateetatik, honako hauek ezartzeko eskabidea egin du 1994-1995 ikasturteari begira:

- \* Haur Hezkuntza
- \* Atzerriko Hizkuntza: Inglesa
- \* Hezkuntza Musikala

Informazioa:

IRAKASLE ESKOLA. Tel.: 943/71 41 57  
20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)



## EZ DA SORTU ZAHARRA ESKUALDEKO GARAPEN AGENTZIA GOIEKI, Goierriren aldeko apostua

**G**oierriko herriek, udalek, eskualdearen garapena bideratzeko elkarte anonimoa sortu berri dute: GOIEKI. Bailarako udal guztiek parte hartzen dute, eta Udal bakoitza bere esparrutik atera eta ikuspuntu zabalagoko politika bat egiteko asmoa dute, beti ere, etorkizuneko Goierri eraikitze helburuarekin.

GOIEKIren nondik norakoen berri jakin nahian, erakunde horretako lau ordezkari bildu ditugu mahaiaren inguruan. Aitor Auzmendi, Ataungo Udaleko zinegotzia, EuEren izenean; Jose Luis Sukia, Ordiziako zinegotzia, HBren izenean; EAJren ordezkari, Xabier Iraola, Legorretako zinegotzia; eta Jose Inazio Zuazola, Ormaiztegiako zinegotzia, EAren ordezkari gisa.

Goierriko udaletan alderdiek duten partaidetzaren eta herri bakoitzak duen biztalegoaren arabera osatuta dago GOIEKI. Ez da sortu zaharra, duela sei



Jose Inazio Zuazola



Aitor Auzmendi



Xabier Iraola



Jose Luis Sukia

bat hilabete inguru sortu baitzen. Administrazio Kontseilua 12 kidek osatzen dute. Herri txiki eta handien arteko oreka lortu nahi izan da 12 kideon osaketarekin. EAJ eta HBk hiruna orde-

kari; EUE eta EAK bina; PSOE eta independenteek bana. Ordezkaritza politikoez gain, dena den, 3 tekniko daude. Agente sozialei ere tarte egingo zaie bigarren urrats batean. Guztien helburua bakarra da: etorkizuneko Goierri, guztiek elkarrekin eraikitzea.

*"Herriak kanpo ateratzen diren proiektu batzuk badaude, eta indar horiek aurrera ateratzeko azpiegitura bat, mahai bat behar zela ikusirik"* sortu zen GOIEKI, Xabier Iraolaren esanetan. Mankomunitate gisa jokatu du Garapen Agentziak. Honek, ordea, ez die Udalei autonomiarik kenduko Iraolak adierazi duenez. *"GOIEKI ez da erabakirik hartzen, Udalei erabakiak proposatu baizik"*, gaineratu du. Auzmendiaren arabera, *"azken batean, zenbait gestio egiteko Udala txikiegi gertatzen da, eta Diputazioa eta Jaurraldiz arduratzen da. Tarteko Administrazio bat sortu nahi izan da"*. Gobernu baten antzeko erakundea izango litzateke beraz GOIEKI.



**ARANDIA**

**Garajea**

AUTOEN KONPONKETA

LADA

N-1, z/g  
Tfona: 88 09 47

Iurre auzoa  
OLABERRIA



Tfona: 885500

ORDIZIA

**IBAI - ONDO**



**ZURGINTZA  
HALTZARIAK  
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:  
Antzizar Auzoa, z/g.  
Tfona: 880543 BEASAIN



GOIHERRIKO MENDI - NEKAZARITZA ELKARTEA  
SANTA MARIA KALEA, 4 - TEL. 88 86 77 88 17 93 - 20240 ORDIZIA

**KALITATEZKO ELIKADURA  
OSASUNAREN OINARRIA**

*\* Janari onak ez du zertan luxu artikulu izanik!  
\* Eros bertako produktuak! Hauek eskeintzen dizute kalitate onena.*



## “Motorra martxan jarri besterik ez”

Emaitzak ikusteko goiz da oraindik. “Motorra martxan jarri besterik ez dugu egin”, Aitor Auzmendik esan duenez. Baina datozen bi urtetarako helburuak eta ekintzak zehaztuak dituzte. Hala nola, formazioa, Goierri Lanbide Eskola eta enpresen arteko lankidetzak; enpresen inkubadora, teknika berrietan oinarrituko diren eta autoenplegua sortuko dituzten enpresak sortu; euskararen normalkuntza; turismoa bultzatzea; Goierri guztira kable-bidezko telebista sortzea. Eskualdeko garapena hori bai, ez da ekonomian bakarrik oinarrituko, “zentzu zabalagoan baizik”, argitu dute lau ordezkariak.

Diru publikoaz finantzatzeko da GOIEKI. Gipuzkoako Diputazioaren eta Udalen dirulaguntza du batez ere. 21 milioi pezeta inguru eman beharko diogu goierritarrok urtero. 40.000 goierritar gara. Beraz, 500-600 pezeta inguru biztanleko.

Orain artean gehiegi “begiratu” izan zaie Goierriko hiru herri handienei: Beasain, Ordizia eta Lazkao, Sukiaren iritziz. GOIEKIk herri txiki eta handien arteko oreka lortu nahi du. “Askotan inertziak ere jokatzeko da” Auzmendiren esanetan, “herri handietan zentralizatzeko joera handia baitago. Baina piskan-piskan inertzia horri frenua jartzeko asmoa

daukate herri txikiak”. Administrazio Kontseiluan 6 ordezkari herri handietakoak dira eta 5 txikiak. “Herri txikiak egunean 4 bat aldiz autoa hartu behar izaten dugu. Ordiziarrek eta beasaindarrek, Donostiara joan behar dutenean bakarrik. Eta bada hori aldatzeko garaia”, azpimarratu du Xabier Iraolak. Alderdi politikoen artean ezberdintasunak egongo dira, Jose Inazio Zuazulo ormaiztegiarraren esanetan, “baina baita, herri txiki eta handien artean ere”.

Goierri azken aldi honetan sortu da beste mankomunitaterik. Udaletatik edo sortutakoak guztiak. Sasieta eta Goimen esaterako. “Egokiena, idealena, Goierriko erakunde guzti hauek GOIEKIk koordinatzea izango litzaiteke”, esan du Iraolak.

## GOIERRITARRA eta “kable telebista”

Euskararen normalizaziorako tresna baliagarria da GOIERRITARRA aldizkaria Sukiaren ustez. “GOIERRITARRA euskara izan behar du helburu; bailara osorako euskarazko komunikabide izatea”, zehaztu du ordiziarrek. Auzmendik, berriz, euskarari baino garrantzia gehiago eman dio komunikabideari. “Bailaratik bailarara begira egindako komunikabidea izan behar du. Edozein talde sozialen garapenerako oso garrantzitsuak dira

komunikabideak. Eta nire ustez helburua ez da euskara normalizatzea izan behar, komunikatzea baizik”. Azken batean, Goierri egiteko tresna bat gehiago izango da GOIERRITARRA, GOIEKiko ordezkarien ustez.

Kable-sistemako telebista sortzeko asmoa ere bada Goierri. Oso tresna garrantzitsua da eskualdean telebista bat izatea GOIEKIk kideen hitzetan. “Baina hori, proiektuaren, proiektuaren, proiektuaren proiektua da”, adierazi du Auzmendik. Euskaraz izango denentz ez dakite. Ekimen pribatu bati bultzada ematea da GOIEKiren asmoa. Dena den, “telebista sortzeko asmoa eta gogoia hori badago ere, eskualdean ez dago une honetan telebista bat sortzeko aukera ekonomikorik”, gaineratu du Auzmendik. “Proiektutxo bat badago eta hori bultzatu nahi da. Lokal bat eskatu dute eta eman zaie”, zehaztu du Sukiak.

Hauteskundeak izango dira datorren urtean. GOIEKiko partaideak aldatu egingo dira, baina eskemek, asmoek, bere horretan jarraituko dute. “Ordez-kari politikoa aldatuagatik, hauteskundeek ez daukate zertan GOIEKI aldatu beharrik”, azpimarratu du Auzmendik.

 Loinaz Agirre



## OSTATU

ERRIOXA jatorrizko izena

Goierriko banatzailea:

SUKIA

☎ 88 16 70

Lizarraga baserria  
ZALDIBIA

## MURUAZPI SAGARDOTEGIA

San Inazio, 25 - Legazpi • Tf. 73 33 26

## MENUAK SAGARDOAREKIN

- Menua 895 pezetetan, astelehenetik ostiralera.
- Kaxuelatxoak, entsaladak.
- Afari merkeak.
- Egunero irekiko dugu, astearteak ezik.
- Aurrez eskatuz gero, oilaskoak edo arkumea egurrezko labean.
- Igandetan, 11etatik 1era hamaiketakoak.



## Zer da Yoga?

Yogari buruz okerrak diren iritzi asko dago. Horregatik yogari buruz hitzegiten hasi aurretik, gaizki ulertua argitu beharra dago.

1.a, *Yoga ez da erlijio bat*. Ez du teologiarik, ez erritorik, ez dogmarik, ez sinismen-sistemarik, e.a. Edozein erlijiotako fededunak badu jarduterik nork bere erlijio-ohiturei kalte egin gabe. Yogaren jarraitzaileen artean siniste mota askotako jendea dago, eta baita erlijio berezirik ez

duenik ere. Yogak, zientzia den neurrian, lagun dezake norberak duen erlijio-esperientzia horretan sakontzen heziketa orokorraren bidez, hau da, gorputza ezagutzea, erlajazioa, arnas-tekniak, kontzentrazioa, meditazioa eta beste hainbat bide direla medio.

2.a, *Yoga ez da magia, ez miraria, ezta misterioa ere*. Ideia hauek Yogarekin lotu dira jendearen sinesberatasun eta xalokeriaren bitartez. Egiatzko Yogi edo Yogako ikasle jator batek guzti hau argi dauka. Ildo honetatik Pantjalik, Yoga Sutren egilea, Yoga Klasikoaren lehen testu horretan, halako gaietan ez mur-



*Yoga gizakiaren zientzia da, bere aspektu guztiak kontutan hartzen ditu*

giltzea eta berekin dakartzan arriskuen berri ematen du.


3.a, *Yoga ez da ez akrobazia, ez soinketa, ezta gorputz-kultura ere*. Irakasle ezjakin askok zabaldu dute Yogaren aspektu fisikoa ospea bereganatzeko eta dirua irabazteko. Arduragabeko joera hori dela eta, jende askok, Mendebaldean batez ere, Yoga kultur fisikoa dela uste izan dute. Yoga aurrera egitea da, gizakiaren garapenerako maila guztietako aurrerapauso egokia da, gorputza, emozioak, gogamena, etika eta izpiritua kontutan hartzen dituelarik. Yogako

ikerketan eta ihardueran metodo orekatu bati uko eginez gero, ez dugu Yogarik, soinketa ariketak edo ariketa fisikoak baino ez dira.

4.a, *Yoga ez da aszetismoa*. Ez da zertan utzi behar familia eta lana, Yogan jardun ahal izateko. Adibide gisa, Yogan diharduten gurasoak goraiatuak izaten dira Yoga literaturan. Faktiblea eta egokia da gurasoak Yogan jardutea bizitza dinamikoagoa eramateko.

Yoga, definizioz, *gizakiaren zientzia da*. Gizakiaren aspektu guztiak kontutan hartzen ditu: bere gorputza, emozioak, gogamena, gorputz-ahalmena eta izpiritua. Gogamenaren kontrola eta bere aldaketa guztiak hartzen ditu bere gain Yogak, kontzentrazio sakonaren bidez. Horregatik kontzentrazio bezala ere definitu izan da Yoga. Yoga terminoak alde tekniko asko ditu, esanahi konbentzional eta eratorriak alegia. Testu klasikoan kontzentrazio definizioa ematen zaio Yogari.

**Ordiziako Yoga Taldea**



Nahi duzun argazkia inprimatuko dizugu zure kamixetan  
Domingo Unanue Plaza  
☎ 88 93 25 ORDIZIA



**ANZIZAR, S. A.**

Autoelektrizitatea  
eta mekanika

Volkswagen  
taldea

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.  
☎ 88 17 00 - 88 17 04 BEASAIN

### ARBOTEGIAK

— B —  
ELOSEGI  
— D —  
E  
— G —  
ARACO  
— S —

Poligonoa 201 Tfnoak.: (943) 88 09 79-88 80 89  
Fax: (943) 88 80 89 OLABERRIA (Gipuzkoa)

Ctra. de La Puebla, s/n Tfnoa.: (941) 10 02 09  
LAGUARDIA (Rioja Alavesa)





## Misiolari bat Ekuatore-Ginean

Iazko urrian irten zen Karitateko Alaben Komunitateko erlijiosa preziatua den Sor Pilar Hurtado espainiar Ginea ohieko Mikomeseng-eko misio afrikarrera. Ordiziako Zaharren Egoitzan 10 urtetako lan oparoa egin eta gero, ekuatoriar oihan-betean dago. Zeraman mixio printzipalena, hango Ospitalean eta Legendunen Zentruan lan egitea. Bertako populazioaren gehiena ume eta emakumeek osatzen dute, 16.000 biztanle inguru herrixketan banatuak, 2.500 km<sup>2</sup>-ko area batean (Gipuzkoa osoa baino handiagoa).

Afrikar lurraldean erlijioso ugari daude, gehienak osasun- hezkuntzalanek emanak, bertan Ebanjelioa zabaltzeko ardura dutela. Misiolari hauerik gabe ezinezkoa litzateke kristau komunitate haietan fedea iraunarazterik. Hauetariko asko, jaiotzez donostiarra dugun Sor Pilar laguna bezalatsu ari dira: gudan oroimen ederra utzi eta herrialde berrietara doaz beren eginbehar berriarekin. Hango bizi-baldintzen erretratua egitekotan, esan, familiar- teko nekazaritza dela bizi-iturri garrantzitsuen, kontutan harturik garai bateko kafe eta kakao plantazioak agortzen ari direla merkaturaketa fal- tagatik eta sulfato eta ongarrien eza de- la medio. Komunikabide erregularrik ez da, ez argindarrik ez eta kanileko urrik. Gutxieneko osasun-baldintzarik ere ez dute. Mikomeseng, herrialde bu- ru den Bata-tik 130 km. tara dago, baina errepideak ondartsuak dira eta 4-5 ordu behar dira bide hori egiteko, urtearoa zein den, euri handien edota hil kiskal- garrien arabera.

Orain dela gutxi Mikomeseng-eko



komunitateko Ospitalea hornituko duen urtegi bat altxatzeko eskaera jaso genuen Ordizian. Proiektu hau Ordizia, Beasain, Lazkao, Gaintza, Zaldibia, Legorreta, Altzaga, Olaberria eta Itsasondoko Udaletan aurkeztua izan da, "3. Munduarekiko Kooperazio" tes- tuinguruan sarturik, laguntza ekono- mikoren bat lortzekotan. Esan bezala, misiolari haren lehen helburua hango osasun-maila hobetzea da eta kristau komunitatea suspertzea. Munduak au- rrrera egiten du eta ahaleginak egin behar dira komunitate afrikar haiek ere aurrera egin dezaten. Kontutan hartu behar dugu munduko 2. herrialde po- breena dela hura, bertako jendearen beharra ikaragarria dela. Gehien kez- katzen gaituena umetaria da eta babe- sik gabeko emakumeak. Herrixkak, gutxieneko baldintzak ez edukitzea- gatik egunero hiltzen diren umez josita daude. Bertaraturiko laguntzaileak saiatzen dira, ordea, erakusten zein di-

ren oinarritzko neurriak, garbitasuna, osasuna, hezkuntza, eta gaineratikoei dagokionez.

Garbi utzi nahi genuke, herrialde hartan dirurik jasotzen duten bakarrak Gobernuarentzat lan egiten dutenak direla, eta 8.000 bat pzta. ko soldatak dituztela; gainontzekoek igeltseritza, zurgintza, eta halakoak dituzte, askok eta askok parrokien babespean, eskola, osasun-zentru, ermitatxoan eraikun- tzan... Sor Pilarrek Mikomeseng-eko Ospitalaren ardura eta oihaneko pos- tuak bisitatzea ditu eginkizun nugu- siak. Zer gehiago esan dezakegu guk, produktiboa, errentagarria eta prakti- koa den gizarte kontsumista honetan bizi garenok? Hemendik agur bero bat luzatzen diogu Sor Pilarri goierritar lagun guztiok, ekinean jarrai dezan.

 Miren Gueembe

### DE LA CUESTA

Etixerako eta bestetarako  
oihal biltegia

Plaza Nagusia,7  
☎ 880432

6 posta kutxa  
ORDIZIA

### IKAS EZAZU MEKANOGRAFIA



**meca  
rapid**

UDA GUZTIAN ZABALIK  
Urdaneta, 23-1. ☎ 887278 **ORDIZIA**



**GRUPO  
VITALICIO**

SEGUROS BANCO VITALICIO NACIONAL HISPANICA  
VITALICIO PERSONAS

**ASEGURUAU**

Esteban Lasa,3 ☎ 160486 BEASAIN



## BEASAIN

### Berziklaketan aitzindari, bai noski

Goierrin sortzen diren zaborren bilketa eta tratamendu-zerbitzua Sasietaren ardurapean dagoenez geroztik, hondakin hauek eragiten dituzten arazoez ohartzeko aukera izan dute Mankomunitatekoek. Beren ustetan, zaborrek duten tratamendurik egokiena berziklaketa da; izan ere, zabor hauek neurri handi batean produktu berriak fabrikatzeko aprobetxa eta berzikla bait daitezke. Horretarako, bi baldintza bete behar dira: batetik, zaborren osagai desberdinak (papera, beira, pilak, e.a.) bereiztea eta txukun kaleratzea eta bestetik, era horretan, bereiztuta alegia, biltzea. Helburu hori lortu nahirik, Sasietak behar diren baliabide teknikoak (edukinontzi, kamioi...) eta pertsonalak jarriko ditu laister. Momentuz, "Berziklaketa, bai noski" izenpean foileto bat banatu du herrian eta (lehenagotik botoi-pilen eta botiken bilketa martxan jarriak zeuden) zenbait lekutan bereziki pape-  
rentzako diren edukinontzi urdinak jarri dituzte, 25etik 30era. Programa

#### Material hauek berzikla ahal ditzakezu:

|                                                           |                                  |
|-----------------------------------------------------------|----------------------------------|
| Egunkariak, aldizkariak eta gainontzeko paper zaharrak... | Edukinontzi urdinetan.           |
| Botilak eta beirazko ontziak...                           | Edukinontzi txuri edo berdeetan. |
| Errapa eta trapu zaharrak...                              | Etxeko atarian.                  |
| "Botoi" erako pila zaharrak...                            | Saltzen dituzten dendetan.       |
| Pasatako botikak...                                       | Farmazietan                      |
| Autotako olio zaharrak...                                 | Saltzen dituzten dendetan.       |



hau arrakastatsua izateko ordea, bai zaborren hautaketan bai bereizketan zure lankidetzak ezinbestekoa da, material bakoitza, azkenik, dagokion edukinontziara joan dadin.

**U**daleko Euskara Batzordeak argitaratu berria du OHO eta Ertaintako idazleei zuzendutako IV Beasain Idaz-Lehiaketa, 93.ean saritutako idazlanak hain zuzen. Besteak beste, Adur Ezenarro, Joseba Zubizarreta, Oihana Larrañaga, Amaia Dorronsoro, Unai

Begiristain, Aitor Sarriegi, Jon Iturriotz, Leire Garmendia, Unai Galparsoro, Ekaitz Goikoetxea eta Iñigo Ugarteren sormen-lanak argitaratu eman dira.

**B**eaingoko Udalaren aurrekontuaren (1.334 milioi) %28a, hau da, 329 milioi inbertsioetara zuzendu dira. Dirutza horren herena Diputazioaren dirulaguntzen bidez estaliko da. Usurbe zinemari 125 milioi emango zaizkio; Arte Plastikoen Zentruari 35 milioi; beste 15 milioi Usurberanzko bideko obrei; Letamendiko parkeari ia 17 milioi; Udal Liburutegiaren informatizazioari eta beste zenbait zerbitzuri 6 milioi.

**B**estalde, Ezkiaga edo Porteriako auzoari buruzko hirigintza-hitzarmena onartua izan zen azken Plenon. Akordio honen bidez, abandonatu samarturik egon den auzo honetako hirigintza errematatzea posible izango da.

*Erredakzioa*

*Giro jator eta atsegina*

**BASAKANA**

ITURRIOZ 11  
BEASAIN

Erakusketa  
Sukaldeko tresnak

Mariartz, 4  
Tfona: 88 86 84

BEASAIN

**UDAL EUSKALTEGIA**

LOINAZKO S. MARTIN PLAZA  
KULTUR ETXEA 1.3  
Tel: 889094

**EUSKARA**

5 ordutako ikastaro trinkoa  
Uztailaren 1etik 29rarte aste-  
lehenetik ostiralera goizez

Matrikula: 5.000 pzta.  
Matrikula epea: ekainak 13tik 24ra

**MARI JOSE  
MERTZERIA**

*Kinkila-denda*

887267  
S. Inazio, 14 (Galeriak) BEASAIN

**LOINATZ  
Taberna  
Jatetxea**

Bazkari, afari,  
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 88 20 07 BEASAIN



# Udal-adierazleak... eta besteak

EUSTAT, "Txato" Agirre ataundarrak zuzentzen duen Euskal Estatistika-Erakundeak bost urtetik behin argitaratzen duen "Udal-adierazleak" liburuxka dugu eskuan. Atauni buruzko datu pilo bat dator, eta hainbat kasutan, Goierri bailara, Gipuzkoa, Euskal Autonomi Elkartea, edota estatuko datuekin konparazioak egiten dira bertan. Guztiak laburbiltzeak luze joko ligukenez, aldiro labur-labur bitxiak ematen saiatuko gara.

Baina, hortik eta beste hainbat tokitatik jasotako zenbaki eta zertzelada zehatzez gain, edo hoiekin batera, Ataun nahiz ataundarroi buruzko hainbat gauza argigarri, xelebre, nabarmen, berezi, desberdin edo denadelakoak azaltzeari ere ekingo diogu hemendik aurrera, guztiak ere nahasian emanez.

Adibidez, eta beti ere ehuneko zenbatekoan kontuan izanda, 65 urtetik gorako biztanleria, lehen aikatutako toki guzti hoietakoa baino haundiagoa da Ataungoa; jaiotzen direnen kopurua berriz, denetan baino txikiagoa; hildakoak ugariagoak; ezkontzak gutxiago; berezko hazkundera, negatiboa;... Bestalde, datozen ikasturtean eskolara



Finaleraino heldu dira futbolari hauek

Arg.: J. Begiristain

lehenengo aldiz joango diren umeak, hiru izango dira. Hurrengo urteetarako ordea, gehiago dira dagoeneko jaioak. Eta izango al dira!, eskolarik gabe utziko gintuzkeen "adierazle" horixe izan daiteke eta, gainontzean hemen gustora bizi garenon kezka-iturria.

## Puntako kirolariak

Gipuzkoako Kirol Txapelketan urrutira ailegatu den eskolako kirolaririk bada oraingoan ere. Futbitoan, alebin mutilak finalera heldu ziren. Donostian jokaturako partidua hala erabakita (4-1), bigarren gelditu dira ataundarrak, Tolosako Escolapios

ikastetxekoan ondoren. Tenisean berriz, alebin mutilak bigarren izan dira eta alebin neskak hirugarren, guztiak ere, Gipuzkoa mailan.

## Errekan igeri

Igeri edo, jolasean behintzat gozatu ederra hartzen dute hainbat ume Ataungo errekan. Garai baten Ataun guztian zeharreko edozein potzutuan igeri egiten ikasi eta ibilitakoak gara Agauntza errekan. Kontu haiek bukatu ziren. Baina azken urte hauetan bada gun bat,

ohitura hura berrituz igeri egiteko hartua: Urkiola ingurura etortzen dira gazteak, eta Lazkaoetik etorri ere. Guk ez dakigu osasunerako oso egokia izango den ur hoietan bainatzea, baina ume hauek kalte haundirik ez dutela somatzen, hori garbi dago.

## Jolastokiak pronto

Eskola atzean eta Aldaparon, bietan batera egin dira jolastoki berriak. Bukatzeko pazientzirik gabe estreinatu dira eta estimazio onaren seinale da hori.

 Joxe Begiristain

## TXERTAKADI SAGARDOTEGIA

- Orain ostiral eta larunbatetan erretegia zabalik 9etatik aurrera.
- Astegunetan ere emango da aurrez eskatu ezker, 884798 tfnora

Bixita gaitzazu!

Urtesabel Auzoa

ZALDIBIA


☎ 16 13 59

## ALTZAGARATE JATETXEA

- Leku aproposa bataio, jaunartze, eztaiak, e.a. ospatzeko
- Bazkari, afari, meriendak...

88 41 96 Tfonoa

ALTZAGA



BEASAIN

☎ 88 74 00



## HBren aldizkari berria

Zaldibiko HBk "Zaldibia eginez" lemapean aldizkari berriaren 0 zenbakia kaleratu du. Udal gestioari dedikatua dator osorik eta gogor kritikatzeko ZUTen gestioa. HBren esanetan, Udala monstro bihurtzen ari da. Ardu gabekeria ere leporatzen dio HBk ZUTi: "Zer dakite datorkigun presa, Aralarko parke naturala eta D.O.T delako plangintza?". Mankomunitateko bileratara ez joatea ere leporatzen dio HBk ZUTi. "Alkate eta zinegotziei dagokien lanak besteen eskuetan uztea, funtzionari bat Gerente bihurtuz. Jai edo ekitaldi kulturalen antolamenduetan gazte eta herritarren ekimena bultzatu ordez, enpresa pribatuak kontratatzen dituzte, malamente dirua gastatuz". "Herri Batasunaren independentzia eta askatasun osoaren aldeko aberri proiektua izkutatu eta oztopatzen, azken finean, despolitizatzen ere ahala gintzen dira beren udal jardunean. Udala eta udaletxea beraiek dira inportantenak eta beren burua hornitzen gastatzen da lehenengo dirutza". "Inprobisazioa eta gestio txarra. Ponpositate, inobilismoa eta jendearenganako urruntasuna"

HBk, bestalde, joan deneko 3 urte hauetan jaso diren ez-ohizko 50 milioiak non gastu diren galdetzen du, kontuak honela banatzen dituelarik: herriko pinudietatik 26 miloi; HBk I.R.P.F.-tik aurreztuak 8 miloi; HBrenkin batera onarturiko Diputazioko aurrekontutik beste urtetan baino 16 miloi gehiago. Gastu arrunta bikoiztu egin omen da 3 urteotan, 58 miliotik 107ra igoz. Puntu honetan beste gauza bat ere aipatzen du HBk. "Diru laguntza bitxiak" dio. Plazako obrak 37 miloi kostatu omen dira eta hauetatik 35 Euskal Gobernuak jartzen omen ditu. Bitxiena zera omen da: "Plan de Reactivacion de la Economía y el Empleo deritzan programari lotutakoa izanik, subentzio honek ez duela emplegurik sortzen". Hurrengo atala Aralarri eskainia dator. Herriari informaziorik eman ez izana salatzen du HBk: "Apirilaren 26an Aralar Parke Natural gisara izendatu dute. Zaldibiko Udalak

eta herriak ez ote zer esanik gai honetaz? Badirudi hala dela zeren zer informazio jaso du herriak? (...) Zaldibian bi bilera antolatu dira EHNEren eskutik, gai hau dela eta. ZUT taldekoak ez dira agertu, ez batera eta ez bestera". Ondoren parkea nola antolatuko omen denari buruzko informazioa ematen du. Informatzaileen artean Amezketa eta Abaltzisketako Udalak, Ataungo HB, EHNE eta Eguzki aipatzen dira. Parke naturala inposizio hutsa jotzen omen dute; kanpoko jendea begira egina; zonalde bat parke izendatzeak ez omen du garantizatzen naturgune hori erasoetatik libre geratuko denik; baserriaren kaltetan turismoa bultzatzea kritikatzeko dute. Bestalde, erakunde hauek, beti ere HBren orriaren arabera, proiektua burutzeko erabili den forma eta modua ere kritikatzeko dituzte: gaineratiko herri afektatuen iritzirik gabe, kontsensu hitzaren gehiegizko erabilera, alegaziorik dokumentu idatzian ez omen dituzte sartu... Atal hau galdera batekin ixten du: "Konpentsazioak dirutan bakarrik ordain al daitezke?" Bere printzipioen aldarrikapen bat egin ez datorren atalarekin amaitzen da aldizkariaren ale hau.

## Irakasle aldaketak: gurasoak kezkatu

Herri Eskolako irakasleen behinbetiko izendapenak direla eta, Guraso Asanbladaren ustez, plantila puskatuta gelditzen da, eta honek ikastetxeko bide pedagogikoarentzat izugarritzko haustura lekarke. Erreformari begira azken urte hauetan matematikan eta hizkuntzan burutzen ari diren Proiektu Kurrikularrak etenda geratzeko arriskua dute. Erreformari ekiteko, irakasle bakoitzak izan duen prestakuntza ez omen da gauzatuko eskola honetan. Izan ere, honek jarraipena behar du, baina, irakasle plantilaren erdia aldatzen bada, egoera larrian aurkituko da eskola. Egoera hau onartezintzat jotzen du Guraso Asanbladak, eta honako irtenbide hauek proposatzen ditu: Le-kualdatze Lehiaketa dagoen ikastetxetan, plantila pixkanaka aldatuz, irakasle proportzio fijoari eustea, lehiaketa

ta hori dela medio ikaskuntzaren kalitate zeharo baldintzaturik gera ez dadin. Bestalde, Herri Eskolarako ateratzen diren plaza guztiak 2. hizkuntza perfildunak izan daitezela.



## Aitziber Garmendia irabazle bertsopaperetan

Maiatzaren 28an amaitu zen XIV. Eskolarteko Bertsolari Txapelketa. Oihartzunen jokatu zen bapateko finalaren ondoren banatu ziren gaineratiko sariak ere. Saridunetako bat Nañarriko Aitziber Garmendia dugu: 5 eta 6. mailako partaideen artean bera izan da txapeladun, bertsopaperetan. "Zarata gehiegi dago gure herrian" zuen bi bertso paratzeko gaia Aitziberrek; eta, egia esan, primeran moldatu zituen biak ere. Neurri eta erriman inolako akatsik gabeak dira; euskera aldetik, berriz, txukun eta dotore josiak, eta, bestalde, arrazoi politak. Zorionak, Aitziber, batez ere zuri; baina baita Bertso Eskolara joaten diren zure lagunei ere, zuen maisuari bezalaxe.

 **Rufino Iraola**



## Kultur Astea ekainaren 15etik 17ra

Uda garai honetan, urtero izaten dugu Itsasondon astebete inguru kultur ekitaldi mordoska bat gozatzeko. Aurten hiru egunetan pilatu ditugu denak, tartean, berehala azalduko dugun zerrendak erakusten duen eran, pertsona ezagun asko herrira etorriko zaizkigunak, eta gai interesgarriak ere bai.

**Ekainak 15, asteazkena:** arratsaldeko 3etan, haurrentzako ipuin-kontaketa, Agurtzane Sagastumeren eskutik; iluntzeko 8etan, Erretore-etxeazpian, filmina emanaldia, gaia "Artzaien bizimodua" eta emalea Gema Montero direlarik. **Ekainak 16, osteguna:** Iluntzeko 8etan, Erretore-etxeazpian, mahai- ingurua, gaia "Bertsolaritza, beste ikuspegi batetik", hizlariak Jon Sarasua eta Andoni Egaña eta gidaria Mikel Mendizabal direlarik. **Ekainak 17, ostirala:** leku eta ordu berean, irakurketa saioa, irakurlea Bernardo Atxaga delarik eta



*Ez da aurreneko aldia Bernardo Atxaga Itsasondora datorrena*

testua berak aukeratutako bat. Gaueko 9etan, Arbelaitz Elkartean, Herri-afaria, afaltiarren artean txiste-kontalari eta trikitilariak egongo direla. Hauxe da aurtengorako prestatu dugun Kultur

Astea. Gusto duenak badu aukera ekainaren 3. asteko iluntzeetan kulturaz piska bat jazteko aukera: Itsasondon.

### Txakurren txertaketa

Txakurrik daukaten jabe guztiei adierazten zaie urteroko amorraren aurkako txertaketa egingo dela, datorren 17an 17,00etatik 19etara Arama eta Altzagako udaletxe ondoan eta 18an 9,00etatik 11,00etara Itsasondoko udaletxeazpian. Gogorarazi, txertaketa borondatezkoa dela eta gizartearen eta osasunaren onerakoa, derrigorrezkoa E.H.-tik kanpo. Era berean, hidadidosisen kanpaina ere egingo da (gaisotasun hau gizakiari ere pasa diezaioke txakurrak). Txertaketaren kostua 2.500 pzta.koa da, Gipuzkoako Albaitero Eskolak jarritako prezio txikiena.

*Arantxa Arza*

## IDIAZABAL

### Ekaineko berri onak

Dagoeneko uda-usaina dago bazterretan. Eguzkiaren beroaz lasai gozatzeko ez zaigu ezer geratzen. Haur eta gazteak laister egingo dituzte ikasturteko azken esaminak eta helduxeagoak oporretarako asmoak tajutzen hasiko dira. Lurrak beste kolore bat hartuko du, gu guztiok bezalaxe, gauzak orohar aldatuko direlarik. Baina uda iritsi aurretik ere bada zer kontatu:

**\*17an,** esaterako, Igarondo igerilekua irekiko da eta iraila arte ez da egun bakar batez ere itxiko (eguraldiak laguntzen badu, noski). **\*23an,** ostegunez, gure herrira arbasoen oihartzuna iritsiko da eta San Juan bezpera gaua izateagatik azken 3 urteotan bezala dantza eta kanta, umorez jantziko dira kaleak. **\*25ean,** zoritxarrez, Zirika Irratiak bere denboraldiko azken irratsaioa eskeiniko digu, uda amaitu arte agurtuko gaitu.

Honela uda iritsiko da eta hondartza-igerileku nahiz basoak jendez beteko dira. Naturak urte osoan jasango duen astindurik handiena orain jasango du eta honen aurrean ahal den guztia egin behar dugula uste dut. Gure Udalak mendipisten erabileraren inguruan idatzi interesgarri bat kaleratu du. Mezua ondoko hauxe dugu: "Udalaren asmoa pisten erabilera desegokia edo neurritz kanpoko eta zorua onoriozko hondamena gutxitzea" izan da; horretarako ordenantzaren artikuluetan zenbait neurri eta jokabide ezartzen dira. Gehienak, pistak egurra ateratzeko erabili behar dituztenei begira eginak daude, baina beste batzuk herritar askoren interesekoak izango dira. Puntu batek hau dio hitzez hitz: "Debekatua dago bidean dagoen azken baserritik aurrera motoredun ibilgailuekin denborapasakoetan ibiltzea: ehi-

zean, motorrean edo autoan ibiltzea, perretxiku biltzera, e.a." Horrek esan nahi du, lan-kontuetaarako, mendia edo pertsonak babesteko ez bada (ganadua zaindu, basolana egin, osasun zerbitzuak, e.a.), ezin dela pasa herri bideetatik motorrezkoekin azken baserritik aurrera.

Erabaki honen helburua natur ingurunea babestea da. Udala, beste erakunde eta talde asko bezala, kezkatuta dago gure ondorengoei utzi behar diegun georoaz. Udal honek hori jakin arazten die herritar guztiei eta geure ahalegintxoak egitea zein onuragarria litzatekeen ez dezagula ahaztu.

*Aloña Galarraga*



# Lontxo Narbarte txondargilea

65 urte ditu eta bere hitzetan "bigarren jubilaria" lortzeko merituak egingo omen dituen edo, lanean hasi da. Lazkaon bertan, Markeseneko lantokia zen lekuan txondarra egiten ari da dotore asko.

Lontxo, goizuetarra jaiotzez, lazkaotarra bizitzez. Garai batean ugari egindakoa, baina 44 bat urte ba omen dira txondarrik egiten ez duela. 11 urte zituela auzokoekin laguntzaile modura hasi Aitzkorri eta Garraldan, beheko Aiako Altzola eta Urdanetan, Aldabako Lopetegi baserrietan, Goizuetan, Lesakan, Atxun (Idiazabal eta Ataungo mugan), Ataunen eta.. "ahaztuko zitzaten bakarren bat baina!" makina bat lekutan egin ditu. Hainbeste urte egin gabe eman ondoren, jubilatzean horrixe ekiteko gogoa omen zuen, txondarra egiteko kutixia, eta Xabier semea lagun



duela ekin dio lanari. Maiatzaren 14ean hasi zen "alkatea" (erdi-erdian jartzen den egur nagusia) eta gaineratiko egurrak jartzen. 54 bat tonelada egurrez, pagoa gehiena baina denetik duena (pinua, lizarra...), osatua dagoen txondarra ez da broma, ez egiteak ematen duen lana ere, ez horratio!

Behin egurrak ondo prestatzen dituenean, gainetik lurra botako omen du

eta ondoren su eman: egurra poliki-poliki egosi egin behar da, surik ez da ikusi ere egingo eta kea ere gutxi. Horretarako gau eta egun ondoan egon behar du zaintzen, sor ditezkeen txuloak estaltzen eta abar. Eguraldiak zeresan handia omen du (haizerik badabilen ala ez...) baina 20 bat egun beharko omen ditu egurra egosi eta ikatz bihurtzen.

Ondo aterako zaion esperantza osoa du eta "hemendik lortzen den ikatza kanpotik ekarritakoa baño hobea izango da; hortan dudaik ez in!" dio ziur eta pozik, lanean gozatzen ari den Lontxok. Ikatza saldu egingo du, ez dirua irabazteko asmorik duelako, bere gustoz, "kapri-txo" ari bait da.

 **Mari Joxe Madariaga**

## MUNDUATE Erlojutegia

100 urte baino gehiago  
Goierriren zerbitzuan

Nagusia, 1  
Tfona: 88 12 72

ORDIZIA

## Ana Belén ILEAPAINDEGIA

Gurutze, 2  
☎ 88 26 31

LAZKAO



## MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94  
ORDIZIA

## GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba  
MOTA GUZTIETAKO: Pentsuak, Ongarriak, Lantresnak

Euskalerria Kalea  
Industrialdea

☎ 88 04 15 ORDIZIA  
☎ 16 07 07 OLABERRIA

## Arkiupe

Tapiztegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Edredoiak  
Mantak - Maindireak - Mahai ohialak  
Toailak - Gortinak eta osagarriak

Manuel Zeberio

J.M. Barandiaran Plaza

☎ 88 00 84

ORDIZIA

## ORDIZIA AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76

## MASAJISTA DIPLOMATUA

Xole Zubeldia

Euskalerria, 8 ☎ 88 10 52  
ORDIZIA



**A**urtengo Arabako Ikastolen festa, "Araba Euskaraz", Lapuebla de Labar-kan ospatuko da, ekainaren 19an, "Non eta mugan" lelopean. Iazko Kilometroak Ordizian ospatu zenez, Arabakoak Jakintza ikastolakoengana jo zuten, berauen esperientzia ezagutu nahian. Kilometroak 93ko antolatzaileak, laguntza eskeiniz area oso bat hartuko dute, horretarako 150 pertsona inguru behar dituzte lanerako. Jakintzakoak gai izango direlakoan daude erronka berri honi aurre egiteko. Lapueblan, ingurua erdalduna izan arren, ikastola dago; gurasoek ez jakin arren, haur guztiak euskara badakite; Administrazioetik dirurik ez jaso arren, aurrera egiten dute. Oraindik lagundu ahal dezakezunez, hemendik animoak luzatzen dizkizugu ekimen horretan parte har dezazun. 160540 telefonora deituz, Ikastolakoe-kin harremanetan jar zintezke.

**A**razoak sortu dira San Juango suen inguruan: azken urteotan goraka joan da Su Gorria eta jende dexente biltzen du ekintza honek; urtero gisa, zenbait gastuei aurre egiteko udal dirulaguntza eskatzen dute horren bultzatzaileek. Baina Kultura Batzordeko zenbait kideen iritziz, ekitaldia politizatu egin ohi da, komunikatuak irakurketa dela medio. Hori dela eta, 75.000 pezetako laguntza baldintzatu egin zaie. Su eta dantzen antolatzaileen salaketa jaso dugu, "Ordiziako Udaleko zenbaiten jokaera inquisitoriala dela eta, aspertuta gaude ikustez Udaletxeak nola politizatzen duen bere eskuetatik ihes egiten dion guztia. Deialdia irekia izaten da eta inor ez da zein adierazpen askatasuna murrizteko". Laguntzarik gabe, nekez antola liteke halako ospakizunik.

**E**z da oraingoxeko kontua: Cervantes espainiar idazle famatuaren alabaren ama ordiziarra (Arama Ordiziaren mugen barnean zegoen mende haietan) izan zitekeenaren susmoa dago hemen bertan. Garai batean Antxon Crehuet ibili zen kontuokin eta orain, berriz, Patxi Garmendia historialariak berriitu ditu. Amaren izena Ana Muxikakoa eta alabarena Isabel de Saavedra ziratekeela diote historia-agiriak.

**A**urten ere XII lagunarteko saskibalo txapelketa jokatu da. Gaur, hilak 10, amaitzen da izenemateko epea eta 13an hasiko dira partidua frontoi txikian. Iazkoan 28 izan ziren izena eman zuten taldeak. Antolatzaileak, zifra hori igoko delakoan daude.

*Aitor Calvillo*

## ORMAIZTEGI

# Futbol-sala Txapelketa

Beste urte batzutako ohitura jarraituz, aurten ere uda parterako Futbol-sala Txapelketa antolatu da. Aurtengo antolatzaileak Ormaiztegiko OKE eta gazte talde bat izango dira. Txapelketa honek maila herrikoia edukitzea nahi da; horregatik, urtero bezala, talde bakoitzean kanpokoak diren bi jokalarik onartuko dira. Futbol partiduei ekainaren 28an emango zaie hasiera eta aurrez izena emateko baldintza gutxi batzuk bete behar dira: adina) jokalarik guztiak 14 urtetik gorakoak izan beharko dute; izenematea) 6.000 pzta.; izenemateko epea) ekainak 22arte; non) Liburutegian, arratsaldeko 5etatik 7ak arte; tfnoa.: 160064. Beraz, baduzue non denbora pasa eta kirol piska bat egin. Animatu eta apuntatu.

**FUTBOL SALA  
TXAPELKETA  
( herrikoia )**

Antolatzaileak: O.K.E. eta Ormaiztegiko Gazteak.

\* DATA: Ekainaren 28an hasiko da.

\* EPEA: Ekainaren 22arte.

\* INSCRIPZIOA: 6.000 pzta.

\* ADINA: 14 urtetatik



### Igerilekuak martxan

Aurtengoan igerilekuak irekiko ote ziren, lehenbizi dudatan jarri bazen ere, ez da horren beldurrik izango. Aurreko GOIERRITARArrean aipatzen ziren aldaketa guztiak egitea ez da beharrezkoa izango, gutxieneko eskabide batzuk betetzea nahi-

koa izango da. Udalak, uraren kontrol-sistema hobetzeko (fluorra, kloroa, e.a.) zenbait hobekuntza egin beharko ditu, eta horrez gain polikiroldegiko aldagelak egokitu eta aldageletatik igerilekuraino 2 metroko zabalera izango duten ormigoizko pasabidea egin. Guzti hau miloi pare bateko kontua izango ote den estimatzen da. Horrela bada, aurten ere urteroko data modu txoan, istalakuntzak irekita izango dira. Irekiko ez dena igerileku txikia izango da, ez baita inondik ere gutxieneko baldintzetako neurriak ematen. Hala bada, hasierako berri ilun haiek ahaztu eta berri on bat pistinetara joateko ohitura duzuen gutxiontzat.

*Jon Aldanondo*

## KEMEN KIROLAK



## ORDIZIAKO BARRENA EUSKALTEGIA UDA IKASTAROA

Ekainaren 27tik Uztailaren 22ra  
Goizez 5 ordu, maila guztiak, alfabetatze eta EGA

Matrikula zabalik ekainaren 23rarte Tfnoa.: 881280



# Gurutzegramak

|    | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |   |   |
|----|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|---|---|
| 1  | L | I | N | T | O | M | T | A | U | N  | G  | A  | R  | O  | N  | E  | G  | U  | N  |    |   |   |
| 2  | A | R | A | U |   | B | A | U | X | I  | J  | A  |    | O  | R  | A  | I  | N  | U  |    |   |   |
| 3  | Z | A | L | T | Z | A | I | N |   | K  | U  | R  | T  | S  | O  | E  |    | R  | E  |    |   |   |
| 4  | K | K | E |   |   | L | A | N |   | R  |    | A  | T  | K  | I  | M  | S  | O  | N  |    |   |   |
| 5  | A | U | R | R | E | K | O | F | A | S  | U  | N  |    | O  | O  | I  | E  | S  |    |    |   |   |
| 6  | O | R | I | A | V |   | G | U | R | V  | T  | Z  | E  | G  | R  | A  | M  | A  | M  |    |   |   |
| 7  |   | R |   | T | T |   | A | K | T | A  |    | Z  | E  | T  | E  | S  | K  | A  |    |    |   |   |
| 8  | B | I |   | A | Z | T |   |   | O | E  |    | E  | G  | I  | A  | R  | E  | K  | I  | N  |   |   |
| 9  | A | Z | E | R | I | A | K |   | T | X  |    | O  |    | S  | O  | M  | A  | T  | U  |    |   |   |
| 10 | R |   | A | R | A | M | A | T | I | K  |    | A  | R  | K  | U  | P  | E  | T  |    |    |   |   |
| 11 | T | O | K | A |   |   | I | N | K | A  | T  | A  | R  |    | N  | C  | A  | O  | A  |    |   |   |
| 12 | O | G | I |   | G | E | L | T | O | K  | I  |    | I  | A  |    | A  | A  | R  | R  |    |   |   |
| 13 | L | I | D | I | A |   | A |   |   | I  | P  | I  |    | T  |    | N  | R  | K  | A  |    |   |   |
| 14 | O | T | E |   | N |   | T | X | O |    | J  | E  |    |    | B  | O  | A  | A  | B  |    |   |   |
| 15 |   | E |   | E | A | Z | U | A |   | L  | A  | V  | E  |    | A  | B  | I  | L  | A  |    |   |   |
| 16 | A | G | A | N | D | E |   |   | G | O  | I  | A  | L  | D  | E  |    | K  | A  | K  | A  |   |   |
| 17 | Z | I | R | T | U |   |   |   | U | I  | Z  |    |    |    | X  |    | R  | A  |    | O  |   |   |
| 18 | E |   | A | Z |   |   | A | B | A | N  | T  | A  | I  | L  | A  |    | A  | R  | T  | E  |   |   |
| 19 | B | X | L | U | Z | I | K |   | R | O  |    | P  | O  | P  | U  | L  | A  | Z  | I  | O  |   |   |
| 20 | A | D | A | N |   |   | A | L | B | E  | R  | T  | O  |    |    | O  | R  | E  | K  | A  | T | U |

## Ezkerretik-eskuinera

1. Musika taldea. Eguberri.
2. Erregela. Arroka mota bat. Une, honetan. Urainoa.
3. Zamaltzain. Ikasturtze. Musika nota.
4. Kaka. Bokalak. Zeregin. Kontsonantea. Errealeko jokalaririk ohia.
5. Buruzagitasun. Errepikaturik, bokalak. Alderantziz, zenbakia.
6. Goierriko ibai batetan. Hitz-gurutzaketa. Milla.
7. Kontsonantea. Errepikaturik, kontsonantea. Agiri, Xabier kantaria. Musika mota bat.
8. Bitboko matrikula Alderantziz, arkatza-ren bukaera. Bokalak. Arrazoiarekin.
9. Idiazabalgoak. Tona. Hamar. Oxigenoa. Nabaritu.
10. Kontsonantea. Goierriko herri batetik. Enparantzetan, arkuz estaltirik egoten den zatia. Tona.
11. Joku bat. Inken herrialdeko. Hofanila. Bokalak.
12. Egunero jaten dugu. Tona gelditzen den tokia. Ikasle aber-aleak. Suitzako ibia. Kontsonantea.
13. Neska izena. Lehenengo bokala. Tipi-ren bukaera. Tona. Kontsonanteak. Bokala.
14. Gauza bat dagoen ala ez gaitzeko erabiltzen dugu. Nitrogenoa. Eh... Alderantziz, izenordea. Suge erraldota. Lehenengo biak.
15. Bigarren bokala. Bokalak. Gaztelaraz, giltza. Infor.
16. Asteko egun bat. Goragun. Mokordo.
17. Abiadura. Alderantziz, ziur-en hasieran. Hamar. Egypitarren jainkoa. Zero.
18. Bokala. Lehenengo eta azke-na. Benteja. Abiltasun.
19. Kurrugorritan. Oro-ren bu-kaera. Biztanlego.
20. Lehenengo gizona. Errealeko atezaina. Eskilibratu.

## Goitik-behera

1. Goierriko herria. Maritu eta ... Aitarren arreba.
2. Iskurrita. Okindegi. Larehun-ta-larogei ta homeretzi.
3. Alderantziz, zeregin. Gari-ren, bukaera. Eusko Alkartasunakoa. Earrua.
4. Tuteran bizi dena. Bat. Aditu.
5. Oxigenoa. Natur... Abere. Az-kena.
6. Estatu Batuetako saskibaloia. Potasioa. Alderantziz, Martin-en hasieran. Bokala. Euskadiko Ezke-rra. Gipuzkoako herria.
7. Alderantziz, Dabid eta. (Gatza-ko) Beasaingo Kiroloren Lagunak.
8. Unatug. Trinitrotoluenoa. Arrator txikia. Bartzelona.
9. Alderantziz, exkutu-ren buka-rra. Eozazica. Oxigenoa. Alde-rantziz, mendi bat.
10. Nikotina-ren hasieran. Sua da goenean. Militarren uniformeak. Kurumino.
11. Pronpeta. Kontsonantea. Kipu-la. Lehenengo bokala. Tona.
12. Su ta... Alderantziz, zink-a. Bokala. Errepikaturik, bokala. Idiazabal. Izaera.
13. Bokala. Eja. Mingorri. Larehun-eta-larogei ta hamabost. Gauean egiten dugu.
14. Ehun. Potasioa. Kanpo. Errepi-katurik, bokala. Zapo.
15. Jeneralitasun. Bartzelona. Ha-har. Edateko da.
16. Hitler-zep. Hegazkinak. Bihi.
17. Bokabak. Alderantziz, pema. Kontsonante izena. Araban bizi di-renak.
18. Alderantziz, Negu Gorriak. Ipa-traldeko ikastola. Arkupen-re hasieran. Meategietatik ateratzen dute.
19. Uranioa. Alderantziz, sortu. Euskeraz eta... Mahomatarren jainkoa. Euskal Irrati Telebistaren hasieran.
20. Neukan. Manuel. Euskal Herri-ko probintzia. Oxigenoa. Bokalak.

|    |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
|----|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|
|    | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 1  | I | S | O | A | M | E | M | O | U | Z  | A  | N  | A  | T  | O  | A  | U  |    |    |    |
| 2  | K | A | L | A | B | A | Z | A | Z | A  | R  | R  | A  | B  | E  | I  | T  | A  |    |    |
| 3  | A | L | A | R | A | T | M | A | R | R  | A  | Z  | O  | Z  | E  | R  | U  |    |    |    |
| 4  | R | A | M | N | O | I | Z | T | U | P  | I  | N  | B  | I  | Z  | I  |    |    |    |    |
| 5  | A | T | I | X | T | I | A | S | U | N  | A  | U  | E  | F  | A  | H  |    |    |    |    |
| 6  | K | U | R | K | A | T | U | O | Z | E  | R  | O  | N  | A  |    |    |    |    |    |    |
| 7  | O | A | O | I | R | A | L | O | K | A  | T  | U  | T  | A  | N  | U  |    |    |    |    |
| 8  | R | X | E | L | E | B | R | E | K | E  | R  | I  | O  | T  | U  | T  | K  |    |    |    |
| 9  | I | S | A | S | O | N | E | T | U | Z  | T  | N  | E  | E  | N  | A  |    |    |    |    |
| 10 | I | Z | E | T | N | I | K | O | A | N  | I  | O  | I  | U  | R  | U  | B  |    |    |    |
| 11 | E | S | K | U | A | K | I | U | B | A  | K  | A  | K  | A  | T  | I  |    |    |    |    |
| 12 | A | R | D | E | T | O | D | I | A | N  | U  | A  | L  | E  | S  | K  |    |    |    |    |
| 13 | I | D | T | S | E | T | S | E | A | T  | O  | M  | A  | L  | I  | P  | O  |    |    |    |
| 14 | S | I | D | A | G | E | A | K | O | A  | I  | A  | S  | L  |    |    |    |    |    |    |
| 15 | E | T | A | Z | I | O | N | I | O | L  | D  | A  | R  | K  | O  |    |    |    |    |    |
| 16 | T | A | M | G | O | P | A | L | A | Z  | A  | O  | A  | I  | H  | O  | R  |    |    |    |
| 17 | A | N | T | A | R | T | I | D | A | N  | P  | K  | O  | N  | O  | R  | T  |    |    |    |
| 18 | S | Z | I | R | L | O | K | O | Z | I  | O  | H  | K  | O  | Z  | S  |    |    |    |    |
| 19 | U | N | A | M | U | E | R | E | T | E  | G  | I  | E  | O  | A  | E  | O  |    |    |    |
| 20 | N | A | K | A | A | P | E | T | I | T  | O  | R  | O  | A  | S  | E  | G  |    |    |    |

## Ezker eskuin

1. Bakartasun. Ardoa eramateko. Urtsaldu.
2. Kubi. Txirrindularia.
3. Errealeko jokalaririk. Tona. Arrain, hondakaria. Muga, limite.
4. Ordenagailuetan azaltzen da. Ze-momentutan? Titanoa. Kantzer.
5. Alderantziz. Tarzanen tximua. Kvalitate bat agertzeko erabiltzen den sufijoa. Antipodia. Futboleko Europako kopa. Hidrogenoa.
6. Makurtu. Oxigenoa. Elkano-ren hasieran. Reaumur. Erreleko arrai-na.
7. Bokalak. Iridioa. Errentan har-tuta. Non.
8. Reamur. Kasketaldi, pitxikeria. Gogoratu. Kontsonanteak.
9. Ur asko dago. Alderantziz, adi-tzen. Alderantziz, neska izena.
10. Diska etxe bat. Enia batekoa. toi-negatiboa. Alderantziz, kopeta, kaska.
11. Bostekoak. Bat. EE-BB. Saski-baloia. Beldurti, ikarati.
12. Animalia mota bat. Tolestu-ren hasieran. Bostehun eta bat. Alde-rantziz, hankako zati bat. Potasioa.
13. Larehun ta larogei ta hemere-tzi. Afrikako euli mota bat. Alde-rantziz, klase, era. Alderantziz, ta-loa.
14. IIES. Grabitatea. Eusko Alkar-tasunakoa. Alderantziz, besta, bes-taegun.
15. Ta. Alderantziz, ze-momentu-tan? Yodga. Ausari, balent.
16. Dantza mota bat. Jauregia. Iher-tzi-ren hasieran.
17. Kontinente batetan. Kontso-nantea. Buzan kolpe bat jasotakoan gaitzen dugu.
18. Azufrea. Zirauna-ren hasieran. Esacra. esamolde. Kontsonanteak. Kontsonanteak.
19. Pelotaria. Pelotaria. Bokalak.
20. Burea. Gutziagarri. Bete, asper. Grabitatea.

## Goitik behera

1. Herri bat. Erreztasun.
2. Akusatua. Korrika asko egiten dugunean jartzen gara. Sodioa.
3. Alderantziz, txorijagolea, arrai-pako. Standard. Diskoteketan egiten dena (pl).
4. Sindikatu baten siglak. Kontso-nanteak. Dilindan, zintzilik. Goi-kaldea.
5. Aurteratu, gaititu. Azufrea. Alde-rantziz, Nafarroako herria.
6. Masuria. Oxigenoa. Untzitegi. Tona. Bokalak.
7. Gozatu, zaporatu. Pertsona, denda etab. merkatalgo erlazio batetik, egi-ten zaion eksklusioa. Talo. Fosforoa.
8. Sodioa. Zarama-ren hasieran. Ani-malietan, gizonezkoa. Potasioa. Se-naduan egoten dena.
9. Bostehun. Milla. Aparatu elekti-ko batzuetan, biribiltaturik doan alambrea. Atsegin, plazer.
10. Uxatu. Ordizia Kiroi. Elkarte. Bat. Potasioa. Alderantziz, hitzar-men.
11. Abiadan, harrapataka. Floren... politikaria. Zetazko-ren hasieran.
12. Kontsonanteak. Asteko egun bat. Mutit izena.
13. Goierriko herria. XVI mendeko italiar margolaria. Errepikaturik, bo-kala. Alderantziz, sionista-ren has-e-rra.
14. Nagusitu, koskortu. Rutenia. Tolestu-ren hasieran. Apalak, xu-meak. Oxigenoa.
15. Ordainketa, pagu. Alkoholik ga-beko edari bat. Adurtza-ren hasieran. Lo egiteko.
16. Telurioa. Nafarroako mendatea. Alajaina.
17. Alderantziz, hizibide, profesio. Uranioa. Alderantziz, toki. Greziako, uharte bat.
18. Giltzazain. Erabiltzeko erraza de-na. Euskadiko Ezkerra.
19. Gurea. Alderantziz, buruas-in, zentzugabe. Fosforoa. Izartegi, zero.
20. Bokalak. Bi hanka dituen. Alde-rantziz, becezin, ascezin.



## Herriarteko Pelotan Segura Txapeldun 4.goz

Gipuzkoako Herriarteko Pelota Txapelketan, laugarren aldiz eskuratu berri du Segurak Amezketaaren aurka. Finala aurreko igandean (hilak 5) izan zen, leporaino beteta eta giroz gainezka zegoen Tolosako Beotibar Frontoian.

Finala estua aurrikusten bazen ere, azkenean Segurakoak 2-1 nagusitu ziren. Kozkortuen partidua Amezketa 18-8 irabazi zuen, gazteen mailakoa 22-6 joan zen segurarren alde, eta partidurik parekatuenean gure herriko afizionatuek 22-18ko garaipena lortu zuten. *Beste zenbait arlotan gertatzen ez den bezala, pelotako Herriartekoaren fenomeno bereziki sentitzen dute herriarrek.* Partiduren bat ikusi gabeko herriarrik ez da izango. Adin eta mota guztietako jendea mugitu da, bai etxeko zein kanpoko partiduetara joan eta pelotariak animatzeko. Finalerako 825 sarrera ekarri ziren herrira eta bat bera ere ez zen gelditu saldu gabe.

### "Euliak zopatan plott"

Horixe zioen pankartetako batek. Igandeko partiduko giroa oso gutxitan sortzen den bezalakoa izan zen. Ez zen ezer falta izan: autobusak, pankartak, turutak, txintxarriak, dunbak, bertsoak, kantak, olatuak, klase guztietako builak... Bazkaltzeko ere segurar asko elkartu zen Tolosa inguruko jatetxeetan. Ondoren pelotariei harrera egin zitzairen herrian, herri-afaria ere izan zelarik. Ospakizunak berandu arte jarraitu omen zuen.

### Txapeldunen ibilbidea

Finalerako bidea ez da batere erraza izan. Hasierako arerioa Tolosa izan zen: Segurako partiduan 3-0 eta Tolosakoan 0-3 gelditu ziren. Ondoren Usurbil, 92ko txapelduna, Seguran 2-1 eta Usurbilen 1-2 irabazi zuten. Arerio zaharra izan zen hurrengoa, Azkoitia: etxean 2-1 eta kanpoan 2-1 gelditu ziren, baina Segurak egin zuen aurrera tanteoz. Eta azkenik lanik gehiena eman zuena, Arrasate: "joaneko partiduan", Arrasaten 1-2 eta itzulikoan 2-1. Finala berriz 93ko txapeldunei irabazi diete.



Ezkerretik eskubira, Inge Olano, Jon Ander Hombre, Xabier Etxeberria, Iñigo Otegi, Iñaki Artola eta Xabier Imaz.  
Arg: Javier Gallego

### Protagonistak

Kozkortuen mailan Inge Olano eta Xabier Etxeberria aritu dira, gazteen mailan Iñigo Otegi eta Jon Ander Hombre, eta nagusien mailan berriz, Iñaki Artola, Xabier Imaz eta tartekatuz GOIERRITARRAren azalean ageri den Ibon Etxeberria. Garaipenak ordea ez dira izaten kasualitatearen fruituak. Hor aipatu behar da Patxi Etxeberriak eta Luli Telleriak, beste batzuen artean, urteetan zehar herriko mutikoekin egin duten lana. Eta lehen esan bezala, herriko zaletuek ere izan dute bere eragina.

### Herriartekoaren historia

94koa ordea, ez da izan 1.go Txapela. 67.ean Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa hasi zenetik 8 finaletan izan da Segura, horietatik 4 irabazi eta beste 4 galdu dituela.

**1.go Txapela** 69an lortu zen Azkoitiaren aurka. Finala Bergaran jokatu zen eta 2-1 nagusitu ziren segurarrek. Garai hartan kozkortuetan Ramon Oiarbidek eta Martxel Agirrek jokatu zuten; gazteen mailan Ramon Ormazabal eta Pello Arrietak eta nagusietan Sebastian eta Ximon Garaialde anaiak.

**2. Txapela** 73an iritsi zen Hernaniren aurka. Tolosan jokatu zen eta orduan ere 2-1 nagusitu ziren gureak. Orduko protagonistak Esteban Oiarbide eta Ramon Huerta kozkortuen mailan, Ramon Oiarbide eta Iñaki Aranburu gazteetan eta Iñaki Etxeberria eta Luli Telleria nagusietan.

**3. Txapela**, 91n Usurbilgoen aurka. Orduan ere 2-1 nagusitu ziren eta Tolosan jokatu zen. Protagonisten artean, kozkortuetan gaur egun gazte-mailan jokatzen duten Iñigo Otegi eta Jon Ander Hombre, gazte mailan orain nagusietan aritu diren Iñaki Artola eta Xabier Imaz eta nagusietan Andoni Etxeberria eta aurten ere partidu pare batetan aritu den Ibon Etxeberria. Beste 4 finaletara ere helduak dira segurarrek. 70ean Zumarragaren aurka galdu zuten. 76an Arrasateren aurka. 78an Azkoitiren aurka eta 92an Usurbilen kontra.


Ea hurrengo urtean ere hainbeste jende mugitzen den!

 Joseba Telleria



Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



**kutxa fundazioa**  
**fundación kutxa**